



TEOLOGILÄRIEN YARDUNAK





ARKIBIDEA

Orrialdeak

Ataria

TEOLOGI- SAILA

Loyola'ko San Iñazio, Loyola'koa.- Iru Garate'k	1
Miraria Revelazioaren ezaupide.- Berasaluze'tar Xabin ..	8
Zeruratu al izateko Elizaren jaukagun bearra.- Mendizabal'dar Fernando'k	16
Aita Sentuaren Itza.- Balerdi'tar Yon	29
Min gabeko erditza.- Bereziartua'tar Iñaki	34

PHILOSOPHI SAILA

Gizona izaten aburuaren oinarri.- Bastarrika'tar Iñaki ..	39
Izakerak.- "Norbait"	48

KULTUR SAILA

Gure gazteak eta gaurko kultura.- Bolintxu	59
Onela jokatu al ziflake.- Osa'tar Joxe Mari	69
Gipuzkoan barrena.- XX.	67

ANTZE TA ELERTI

Erti txirbillak.- Bastarrika'tar Iñaki	77
Gazte naiz.- Berasaluze'tar Xabin.....	80
O Bakartetxe.- Bastarrika'tar Ixidor	83
Aide zaŕeen oroimenez.- Astigarraga'tar Joxe Antonio	85
Aldare aurrean.- Sueskun'dar Joakin Mari	88

SASKI NASKI

Zaitegi Jaunarekin.- Urbieta'tar Imanol	89
Euskal zaŕeen Biltzarra ..Bereziartua'tar Iñaki	92
Berriak	94

ALKAR IZKETA

.....	96
-------	----

LOYOLA'KO SAN IÑAZIO,

LOYOLA'KOA.

Itxasoa, beti gañezka-naian dabil. Baño beti geldi tzen da ber esparruan, erkaitz zakarri zartakoa edo ondartz gaxoari muxu emen dioneko. Santuak ere badu gañezka-nai ori; eta itxasoak baño zori ohez, bere erriko mugaz bestaldera pulunp eta gañezka egiten du.

Santua, Santu denez, ez da ango edo emengo. Kristo bera bezela, Santua ere, gizartearen onerako emana da, danen ondasun eta aberaski. Egungo egunean aoz-ao dabil "munduko erritar" edo "ciudadano del mundo" delako ori. Inor bada, Santua bai giza-kasta ortakoa. Santuak ez duala ango-emengotasunik... bego ba!

Santu, ordea, gizon bat, gizaki bat da Santu. Santutasune goitik dator, txuri, garbi, ixil, leun... elur maloa iduri; baño Araz edo onen gain kokatzen da, gizaki bat egiten du Santu. Gizon ori baiñan ango edo emngo da; andre-gizon bat ten edo besteren seme edo alaba da; era artako edo ontako jite edo itxura du; alako edo olako kera, jenio edo berezkoa, du. Santutasuna ba, berezko eta dan bezelako gizonari itxasten zaio eta, esatera denez, ez du inoren izakera ondatzen eta galtzen, ontzen eta bikaintzen baizik.

Alde ontatik bai, galde dezakegu nun-nungo diran Santu au ta ori ta bestea. Alaxe, orratio, Paulek, bidalirik bikañenak, "apostolus gentium" izan arren, ardura gabe esan dezake: "Israelitae sunt? Et ego?"

San Iñazio Loyola'koa dala-ta, ez nuan uste gauza ortaraffo etorri zitekeenik. Geurea degunik ere duda egingo nuke, zenbait liburu ta idazki irakurrita. Badu estimazioa. Aundia dala ortikantxe ezagun du. Gizatxar bat izan balitz, etzuan inork naiho. Zeputz egingo zioten.

Amagandik asi digute "sesioa". Ondarru-Zarautz-Ezkoiti'koa zala-ta or dira ibiliak, bakoitzak bere opillari inguratuz txingarra. Baño ori gaitzerdi da, edo ez du orrek gaitzik: nolansai ere etxean gelditzen bait da. Pancorbo'koa zuala ere ama, oraindik orain entzun degu. Parre egin zioten izlariari entzuleek, eta guk ere utzi dezagun pakean iritzi ori, egin dezan lo.

Anagandik gatozen semeagana. Catalan zenbaitek be rea dute ustèz S. Ignazio. Bi tokitan irakurri det surten "S. Ignacio de Loyola, a quien pudieramos llamar S. Ignacio de Nanresa..." Eta beste batean: "De veras es Nanresa la Patria espiritual de S. Ignacio de Loyola? Y tan de veras!... Has lei do esta hoja? Si. Pues entregarla a otro!" Orretgaz gañera, be ren izketa modu guziak kutsu bat du, alegia, Iñigo berena ba it lutenezkoa.

Beste aldetik berriz, orain berri, "Bizitza" batzu ezaldu dira, Loyolako Santuari "bere erriko muñia txurrutatu, ustutu, ta kanpoko arnasa arrotza txertatu nai diotenak. Iz diote ukatzen azpi edo substratu bat emengoa duenik; baño giza egitura bera (formazio eta estiloa) enen-etzakoa, afo tza, ezartzen diote.

Umetan Euskalerritik aldegiña zelako, "erriaren ar nasa" erengabekoa zala Iñigo, uste dute eta diote idazle askok. Orten ez daude zuzen. Ume biguna ez-baño, gazte lozkortu a irten zun, gurasoen etxeti. Amalau-amabost urte ez dira al perrik josten gizonaren bizitzan. Odolak damaion berezkoak gañera, giza-lanara asko egiten da amabost urtetan, asko erasten zaio, eta asko moldatzen da bere kera. Berenkoz gañera, egiturazkoa ere ugari du gizonak ordurako, bere gun, muñia eta odoleraño sakon sartua. Orduan, bere bizitzako beste iño iz baño erneago bisi dakixona, zentzuen ta espirituaren atek kanpoko aidiere zabaldurik.

Lutikoxkorretako jolesak eta burrukak, umekondoko ikasi ta ikusiak erroisilla ta izkutue bai-baño, sakon: ta

ta sendoa alare botatzen dute, gaztearen lur etzean. Egibar baserria errezegei aaztu dute askok. Iñolaz ere, gañera, Loyola'ko Jauregian "bertakoari" (errikoari) bizkarra emanda ez-tziran bizi. Bere erriko kantak eta abestiak zekizkiana zé gon Iñigo, Europa ta Asia-zear asko ibillita gero ere. Ezagun zun etzala kanpokoaren inbiditan mendi gañetik urrutira ki rik bizi izan, bertako lurrari ondo itsatsita baizik, Anteo ur bezela.

Azpeiti'tik irtenak ére egiten zitun. Ori esan ga be dijoa; baño Paris'tik etxeratzean bildur izango da mendi bide batean; "Y llegando a la Provincia, dejó el camino común y tomó el del monte que era más solitario;... (y tiene aquel camino alguna mala fama)". Autob. 87.

Iundua zeñen zabala zen nola ez ikasi, gure itxas sizonen arriskoak nola ez entzun, balearen ondoren lurraren ~~ondurario~~ ta Amerikaren ertzerario azaltzen ziralarik?

Gañerakoan, Iñigoren bidea etzan ortan besterena ez-bezelakoa izan; askok segi diozu arrasto ortatik. Amaiketxo bagera, Iñigo bako gazteagorik erritik alde-egindakoak, zertarako-eta "gizonegiteko", edo ots orretan beintzat. Alare ez legu euskaltasuna orko bide-arietan galdu, ardiak illea sasipuntetan mulloka mulloka bezela. Bidezkoa da gauzak neu rritik ez ateratzea, gañezka ez eragitea.

Gure izketa moteldu bei, amarekin ozta-ozta euskeraz egiten degula geratzerario, moteltzen zaizu. Iñigok etzuan irtenaldi oietan bere euskera galdu beintzat. Bere errira itzulita mara-mara jarduten zun. Begira nutil gaztee ikdale nako Elizetxoan dotriña erakutsi, ta Elosigako errogatibetan sermoi egiten. Nola bere errian ixillik egon, Paris'en dagoa, Azpeiti'n nentsatzen egon beca, gorputzez arrotz, esmo to/po/poz bere erriko, euskaltasuna zapuztu gabe?. Arantza baten zuletusk minbera dauka Inazio Paris'en: bere Erriari kalte egin dio ta orain okerrak zuzendu bearrean dago. (Autob. 85, edic. BAC nota 27.)

Geroxeago esango degunez, Alcalá'n Iñigok erantzun zorrotza ematen dio Gotzai-ordekoari, judua ote danezko sur mur txarretik bere burua garbitzeko:

"Es lógico que Iñigo López de Loyola, reflejara, recién convertido ~~t~~adavía, con noble satisfacción su creencia en la incontaminación del País Vascongado. Hubiera sido absurdo que pensara de otra manera. Recuérdese un hecho de gran trascendencia ambiental". Iñigo jaio aurretixe emandako ordena, orain lege biurtu zun Gipuzkoak, judu ta olakoak Probintzian ez sartu ez ezkondu etzitezzen. "El ambiente antisemita que supone esta ley, acababa de respirarlo Ignacio en su propio hogar". (1).

Baño, Iñazio ~~no~~ berari entzuteko ordua degu. Juduek San Joani bezela "tu quis es?", galde dagoigun. Ta erantzun bezaigu. "Aetatem habet, ipse de se loquatur".

Gertakizun pitxia da onako au. Iñigo gaztea bere zaldunkerari eta aundinari ametsetatik atera du Jainkoak. Badao tapa-tapa, begiak zabal eta bularra arnas berriak azita. Izu ka-antzean dabil bideetan, iñork ezagutu ez dezan. Bildur da bateen batek nungoa danik galde dezaion. Arrokeri-aixe pixkabat sartzen baitzaio nungoa dan aitortzean: "El cual temor (de vana gloria) tanto le afligía, que nunca osaba decir de qué tierra ni qué casa era". (Autob. 36).

Egin du Jerusalem'go bira. Veneciatik Barcelonara dator, zertan asi bear duanentz pentsati. Ferrarati Genova bitartean, gerratea dago-ta, soldadu artean erortzen da. Españikoetatik, batera eta bestera, libratzen da. Prantzesek aia patzen dute gero. Ta ara galdera: "tu quis es?". "Y llevándole al capitán, que era francés, el capitán le preguntó... de qué tierra era; y entendiéndolo que era de Guipusca, le dijo: -yo soy de allí de cerca-, parece ser junto a Bayona; y luego dijo: -Llévadle, y dadle de cenar, y hacedle buen tratamiento-" (Autob. 53).

(1) Erderazko itz guziak ikus: Eusebio Rey S.J., "San I. de Loyola y el problema de los cristianos nuevos". Razón y Fé, enero-febrero 1.956, pag. 177.

Nungoa dan aitortzeko ez du emen Iñigo 'k lenagoko kezkerik: Guipusca'koa dala erdiz erdi erabakitzen dio kapitaniari. Eta euskaldunak euskalduna eragutu duaneko, alkar jo dute biotzak eta kapitana ta Iñigo gelditzen dira alkar tasun atsegitean. Zer bear da bestrik. kapitanak aginduko du: ... "cener y buen tratamiento". Euskoterra dala aitortzeak onarezekoak ekarri dizkio Inaziori. Ba-zekian arek zeñi zer esan. Esan gabe doa euskerez jardun gutela.

Barcelona, Alcalá, Salamanca ta Paris izan ziran azpeitierraren urrengo eponlekurak. Danetan arkitu zitun ezetealdiak edo-ta euskaldunak, bi biek maite maite zuten-ta.

Alcalá'n, gipuzkoar gaztearen bizimoduari begira, errezedotan zeuden "kristau-berria" ala kristau sarra ote zanentz. Iñigo, lagun eta guzi, kartzelare ta auzitegira eraman zuten. Zuzen zuzen galde zion Gotzai-ordekoak: "Si (a sus discipulos) les hacía guardar el sábado". Zorrotza da Iñigo'ren erantzuna: "Los sábados los exhorto a una especial devoción a nuestra Señora. Otras obrervancias del sábado las ignoro, ni en mi tierra suele haber judíos".

"La respuesta de Iñigo, breve y lapidaria arrastra un leve dejo de ironía, De este rápido escarceo sacamos una doble impresión... Respecto de Ignacio, su implícita jactancia de... descender de un país donde no suele haber judíos". (2).

Respuesta lapidaria, leve dejo de ironía, implícita jactancia... badira emen; baño danen azpitik eta gaitetik, ofiarrri ta ostroko antzera, Ineziorren erri-maitasun zintzoa.

Paris'en Iñigo 'k berak, bere lagunetatik nor nor dan adirazia, bera "kantaber" dala ano aitortzen du. Aitortze ezti ta maitetsua zaigu auxe, bere biziko egunik argi eta gozoenean egin bait zigun Inaziok: 1534'ko Andre hari egun artan zazpi lagun zizitzez (botoz) Jauneri eskeiñi baitz ziran.

Iñigok, edonora dijoala, ebeigi ona egiten dio beti euskoterrari. Itzailo aazten, lagun bat topa duanean, euskotarra bada, nungoa dan ipintzea. (Autob. 53, 77).

----- (2). Rey., Musebio, S.I., ibid.

Araoz bergararrak, euskerazko itz batzuek eskutitz batean sartzen dizkio. Bere jardun guzian, Inigo zan bezelako euskotarra azaltzen zan. Ori ondo igarrita zeuden bere lagunek, Simon Rodrigues beinik bein.

Maite izan zun bere Erria beti. Mundu guziaren ar dura zuala ere, ezuan Euskalerrria aaztu. Kristorena izan zedin egifialak egin zitun. Ortantxe bero bero saia zan, eskutitz ez, o toitzez, berak emen sarturiko eliz-oituraz. Loyola'ko nagusi ri, etxeako andreari, illobari, lengusiñeri, jaioterriari, Euskakerriko Gotzeiari zuzentzen dizkie bere eskutitz maitetsuak.

Jaioterria biotz-mamiari zeñen itsatsia zeraman, argi azaltzen da Azpeitiarrai egindako eskutitzean. Ezin diteke karta ori sentimentu bizirik gabe irakurri. Biotz-bi gungarria da. Bertetik bakarrik, besterik gabe, igarri leioke San Inazio'ren erri-maitasunari. Jaungoikoaren aldetik, nai dir "hacer todo placer y todo servicio espiritual... a todos y a todas naturales de esa misma tierra, de donde Dios N. S. me dió, por la su acostumbra de misericordia, mi primer principio y ser natural, sin yo jamás le merecer ni poderle gratificar".

Baiki. Emengoa genuin Inazio. Maite gifun. Gure lufe ko landara aitortzen zan bere. Eta kanpoko aizeak eta giro t. arrak sakastu zuaneko, sorterrira bildu zan, lur ezagunen eta jaioterriko arnas bizigarrian indar-berriturik, berriz mundu zabalera Jaungoikoaren arlore irteteko. "Y después que se curó, decidió partirse", (Ibid. 89).

Neguko gure sukalde-giro jatorra dakarkigu ondoko onek. Baña ez da gure sukaldekoa. Errona'n da. Inazio'ren azken urte ak dira. Bere lagunek, gaatañak iñoiz edo noiz jaten eman oi zizkioten. Eta Inazio'k oso gustara ta pozik jan, "gaztetan alaxe oitua zalako". Ona emen berriz ere, zartzaroa ta gazte aroa poz betean bilduta, urrutiko Euskalerrri zarraren gogorapenean.

Santua zan Inazio, santutasunera emen, gure Loyola ontan biurtua. "Aquí se entregó a Dios Iñigo de Loyola", dio Etxe Santuko Idazpuru batek. Emen du bere Etxe Santua.

Santutasunera, bere jaioterriz gaindi, gizarte osoaren onerako piztu zun Jainkoak. Santu bikain egin zun. "El más católico de los Santos" (Papini) "Ningún caudillo, ningún sabio influyó más poderosamente en el mundo". (Menéndez Pelayo). Baño santutasun ortarako Iñigo, euskal-gizon ua aukeratu zun Jainkoak. Eta gizarte osoaren onerako atera zualarik erearen santutasunezko argi-izpiak gure Erria bete-betean jotzen eta argitzen dute, eta onek bakarrik, Goikoak ala naita, abesten dio: "Inazio gure Patroi sundia".

Iru Garate 'k.S.I.



MIRARIA REVELAZINOAREN

EZAUPIDE.

Gizona, Goiko Jaunaren mende dago, ta ala izan bear, sorkari uts dan ezkeroz, dagokion gisan.

Baño Jaungoikoa etzan, krezino ostean, gizon orretaz ahaztu, ta lokarri batekin lotuko ebala erabagi eban, erligioaren lokarriarekin, alegia.

Egillbak ala nai ta, berez dugu gizona erligio miñez omijua, goi-jite batek eragingo baitukion. Landareari lurpetik bere-berez azteko azi-ındar bat emon eutsan, eta gizonari, era batera, erligio ta Jainkotasuna itsatsi eutsan barne-mufiean.

Ez, ostera, ori bakarrik izan gizonaren erligio, Mo derniste ta Bondal'en jarraitzaileak nai legez. Barnean du alxia, bear bada, baiña orren ganeko zezerren bearrean dago. Ta Jaungoikoak, —beste era batera egin izan zukean legez—, Revelazinoaren bidez osotu nai izan eban, bere sorkarietan goituen zanaren erligio-muga.

Revelazino ori egi edo ^eguzur danentz jakin beafean gagoz, lenen-lenen. Zelan, ordea? Ezaupide edo kriterio asko duguz eskura. Danak ez, barriz, parekoak. Revelazinoaren existentsia ezaupide objektuak ziuertu bear dala, zeresanik be eztago. Beste kriterioak alde batera itxita, artu dagigun ta zaldu, benetako ta indarduntzat dugun kriterio, ots, miraria.

"Revelazinoa ziuertuteko, lenen eta naiko dan ezagupide, miraria da". Ona emen, lan onetan, laburkiro, maninduren dugun gaia.

Euskerazko "mirari" itza, egoki danentz problema-ta alde batera baztertuta, itz berberau erabiliko dugu guk erro oneetan, latineraz "miraculum" berbak dakarzkun idea argitaratuteko.

Miraria, bai theologi aldetik, bai philosopho alde tik arrotu daikegu. Emen philosophi aldera joko dugu batez-be; ez ordea, noizean bein theologi-baratzera igeskadatxoak egin barik.

Bego oinarriz, miraritzaz zer ulertuten dugun: "opus sensibile praeternaturale divinitus factum", zentzupean izanik, Jainkozko almenak egin daiken gauz ikusgarria. Ots, izadiaren indarraren gañetik, dagoan gauza, gertaera, edo yazo era. Alguztiduhak, gauzak bere bidetik eroan bearreen, legeak austen dabezenean, mirari dala esaten dugu, ta ondo esanda, orixe baita miraria.

Gertaera bat mirari izan daiten, benetako miraria beintzat, gauza bi bear dira: izadiaren indarren bidez explika ezin leiken gertaera izan dedilla, ta munduko legeen ganetikogoala. Ondoren, gure gorputzeko zentzu-almenaren eskatzen izan dedilla; ikusi, entzun eta abar daikegula.

Cosmoligian ikasia dugu, izadiko iraunkortasuna, modus constans agendi naturae; ta beti, Alguztidunak eskua sartu ezean, bide batetik doala izadia. Legeak eztira, gertaeraren azalpen besterikan. Observazioaren bidez so, ta legetan jarri, legeak izadiaren barnetik ateraten bait dira. Baina, lege orreen gain dagoan gertaera, gauzen izanerak explika ezin daiken yazoera, beste goi-maillako indarrarekin azaldu bear da.

Jainkozko almenak egifia izan bear dabela, esaten dugu, deabru ta angeru gaiztoen bidez gerta leitekezen yazoeratetik bereizteko. Bardin da emen, Jaungoiko berak, edo-ta bere indarrez angeru onak egitea, angeruak Jaunaren mirabe besterik ez bait dira.

Oraindifo esana daroaguna, mirari phisikoari dago kio, atan-be. Beste mirari-motak be ba dira, ta zerbait esan dagigun eureri buruz.

Adimenduko mirariak.

^{gure}
~~gure~~ adimenduan gauza arrigarriak yazo leitekez. Baiña ez berez, eguneroko ogia baillitze kean, ta gure indarraren bidez. Emen-be, len esan legez, Jainkozko-indar-aizea bear, adimendua zorrotzu ondoren, Berak nai daben azken-muga iritxi dagian gure buruak. Alan, ezin daikegu inoiaz, beste barik, gugandikan urrun direan gauzen barririk jakin, baiña goi-argi lilluratsu batek eragingo ba ligu-ke, urrutiko gauzen jakitun gifiake. Beraz, gure indar-almena ez-baiña, Jaungoikoaren grazi berezi bat litzake.

Ezin guk geure indarrarekin, gertaturen dana jakin; baiña Jaungoikoak gure burua betiko bere jakituriaren txin part batekin gorituko baleu, etorkizunaren giltza izango genuke eskuetan. Goi-esker oneek, santu askok dabe, igarleak, atan-be. Gure baitan soilki yazoten da mirari-mota au, baiña besteeri azaldu ezketiño, apologetirako balio du.

Naimeneko mirariak.

Giza-naimena gula dala izatez. Baiña Jaungoikoaren graziak eusten ba deutsa, izugarritzko kemenaren almena du. Ikusi bestela, santu diraden gizonen bizitzak, edo-ta martyrien biotz-kemena. Nondik atara ainbeste indar? Zelan yokatu ain gogorkiro ideak eraginda? Jainko-esku zabalari esker.

Mirari phisikoan, lege-suste dagoala, esan dugu, eman oster, barne-indarreko lege-betetzea dager; baiña, emen-be, bide normaletik ez-baiña, Jainkozko bide altsuetatik doa anima.

Zentzupean efektorik izan ez arren, mirari asko gerta leitekez gure anima barnean, sujeto danak soilik jakitun izanik. Benetako mirari asko baldin ba da, norberentzat balio dabe. Tamalez, ezta beti ain errez mirari diren entz jakitea. Bide ta trukeak ondo ezagutu ezik, deabruak erooten gaitu, bere zurikeriarekin Jaunaren dirdaia lorrindu naieen. Mystika gais da, ta apologetika-arloan ari gu.

Mirari-etsaien bidea ta asmo okerrak.

Badira, ta ez gitxi ganera, guk emen emondariko mirarien idea ostikatuten dabenak, euren erara gauzak eta gertaerak antolatuteko. Baiña utsean joten dabe, ta azalez estaldu, guk ez eurek jakin eztakigunaren mamia.

Ikus dagiguzan systemata batzu.

Systemata arloan, naturalista izadia gurtu bai gurtuten dabe, baiña ortik kanpora eztago ezer. Mirariak, izadiaren gertaera naturalak ei dira, guk kausak oraindiken ezagutu ez arren; edo-ta, goi indarrari guzurrez edo irudimenez aplikaturiko gertaera naturalak; eta abar.

Oneen bidea jakia dugu: izadiaren legeak goralduta bayeztu komeni duten artean, eta beste guztia —spiritu ta Jainkoaren mundu zabala— zietz-zietzetik ukatu. Quod gratis affirmatur, gratis negatur, utsean ezetz dana, utezan baitez.

Pareko dirade, razionalista agnostikoak. Eztago guk geure buruak ezagutu geinkena baiño munduan. Alperrik gure sen-naturalak lortu ezin leikengaren billa ibiltea. Ta antzeko kirtenkeriak, begiak geiago ez zabal dutearre, .

Beste izen batekin, bear bada, baiña kideko doktrinadarakusgute determinismu autortuten dabenak. Eztago utsegiterik izadiaren legeetan. Gaur, atzo, biar ta beti, legeek bere bidetik zuzen-zuzen, puntu bat-be aldatu barrik, izadi berberak jarririko mugara doiaz, itsuak eta iforkuzendu bakoak bailitzetokean. Mirarientzat tokorik ezta ifondik ageri. Phisika bai, baiña phisikatik aruntz, ezereza.

Aurka-aurkako dirade bere siñesgaitan contingentismu systematara eltzen direnak. Adurraren eskuan litzakez oneentzat munduko gertaerak oro. Determinismu zearo baztartuta, izadian edozer gerta leiteke, ifork ez baitaki izadi-indarraren barririk; eta dakigunetan-be, sarri askotan engaña egiten gara, ta iruzur ~~orain~~ legoke mirarien orpoa...

Oneek mirarien etsai okerrak baldin badira, areago moderno nisten theorien jarraitzalleak, kristautasun-jantzipean erakusten bait dabe mirari dertxagunaren utskerria. Munduko gertaera arrigarrietan ezta inoz Jaungoikoaren interventurik ager. Izugarri badira yazoera asko, baiñaguk, geure ezjakinean, zeri oratu ezean, Jainkoari erantsiten deusaguz, sentimenduak eraginda. Biotzak ala nai ta, ezer eztagoan geuzetan, Jainkoaren eskua dakusgu.

Ahaztuta euken modernistok, biotzak bakarrik ez-baiña, buruak-be Jainkoa autortu ta eskatuten dabela...

Aztertu dagiguzan, beste era batera yokatuten daben beste systemata batzu. Zualtzaren adarrak podau bearrean, azia lurpetik ateraten dabe, ots, Jainkoaren izena ukatu, ta ondoren ondorengoak...

Atheismuak, zera diñosku: Jainkorik ezan ez dan ezketiño, guzur biribil edo azal utsa besterik ezin izan, jendeak mirari deritxon gertaera. Ta arro-arro, morapilloa askatua dabelakoan...

Materialista k, Jainkoaren existentza ukatu ez-ezik, materi bestrik eztagoala munduan, diñoskue, ta materi orrek barruan irarrita daron indarra. Mirariak munduan? Nork eginda? Ta barre dagite mirari itza entzutean, unkeritan ado ari garean...

Deisten eritxian, Jainkosk mundua irazan bai iraban eban, baiña ezkeroztik, ezta bere ardurarik. Jainkoa kaxkartutea ei da, lorriñez egiñiko mundu zikiñ onen ardurarik izatea-ta. Jainkoa asi mirariak egiten? Jaungoikoa ezta mundua sorturik ostean, barriro beraz orohitu.

Systemata ondoren, beren jarraitzalle ospetsuenak jartzearen, ona emen izen batzuek; oso gitxi dirala daskeinguzenak, jakin badakigu, baiña goituenak dakarguz: Spinoza, Locke, Bruno Bauer, Paulus, Wegscheider, Strauss, Feuerbach, Harnack, J. Rouseau, Voltaire, Loysi, Hume, Lessing, Kant, Hérbart, t. a. Argitaratu duguzan systemataren jarraitzalleak oro, itz ba tean...

Orain garatu nai dugun alea jarri dagigun.

T H E S I : "Miracula ut criterium Revelatio-
onis sunt possibilis et cognoscibilia".

"Dagizkeanak eta ezaguarriak dira mirariak, eta Rev-
elazioa sendotuteko kriterio egokiak".

Azalpena: Mirarien possibilitatea ta ezagupena a-
zaldu ta sendotuteko ba'gendu, Revelazioaren kriterio egoki
ta bidezkoa litzake. Ain zuzen, lan ontara jo dagigun.

Mirarien possibilitatea: Izan-be, Jaungoikoak lege
iraunkor ta betikoak ezarri eutsazan izadiari, barne-inder
baten bidez, bide zuzenetik iraun dagian. Egia. Baiña, ezin dai-
ke Alguztidun dan Jaunak, Berak bere borondatez emondariko
lege orreek, ausi ta askatu bein edo bein, edo-ta, euren gain
nai dabena egin? Bestela, lege orreek, Jaungoiko aifiake lita-
ke. Jaungoikoa bakarra dala, alguztiduna, betikorra, personala,
guztia jakin ta daikena, sorkarien jaun eta jabe, mundu ta i-
zadiaren ugazaba, ta abar, errazoi naturalaren bidez jakinki
ta autortu bearrean gagoazan ezkeroztik, mirarien possibili-
tatea bayezkoa dala, burudun edo zeifiek esan bear.

Burudun edo zeifiek diñogu, Elizak esanda baitauka
errazoi naturalak bere indarrarekin bakarrik, Jaungoikoaren
ezistentzara iritxi leikela. Denzinger, 1806: "Si quis dixe-
rit, Deum unum et verum, Creatorem et Dominum nostrum, per ea
quae facta sunt, naturali rationis humanae lumine certo non
nosci non posse: A. S." (C. Vaticano)

Ona emen, gizonak bere buruaren argiarekin Jainkoa
ezagutu daikela, ergo... Jaungoikoa Jainkoa bada, mirariak e-
giteko almena eta eskubide oso-osoak izan bear...

Miraria egingarria da, bada, ta Jaunaren almen eta
esku-indarrari dagokion bide zuzena.

Zertarako egiten ditu Jainkoak mirariak? Bere al-
guztitasuna erakusteko, bere ontasun ta izena agertuteko, gi-
zonak ezagutu, maite ta gurtu dagian, t.a. Ori bai, zio ta zer-
gait ez gitxi ta veneragarriak izaten ditu Jaunak bere a...

ginkizunetan, guk estima ezin daikeguzan zio ta motivuak sarritan.

Mirariaren ezaguera:

Lau alde ez-berdinetatik iker tu geinke miraria, ots, lau mailleko egiak ikusten duguz mirariaren azterketan.

a) **Miraria histori-arloan:** Jainkozko-almenez eta zen tzupean jasuten dan gertaera dala miraria, esanda daroagu. Gertaera dan ezkeroz, historiari dagokion bidetik ixtuditu bear da. Noiz gertatu zan, zelan, non, eta abar, jakin-gaiak dira beste edozein yazoera aña...

b) **Philosophiarlotik begiratuta:** Gertaera, olan edo alan, adierazo egin bear da. Izadiaren bideetatik ikuslizen dala ikusi eragin ezker, mirari-aztarnarik eztagoala, agiriaren dager. Sarritan eztakigu noraino elduten direan izadiaren indarrak, baiña aski dugu jakin-gai dan gertaera explikatuteko eztirala naiko jakitea. Esate baterako: iru egunean ia ustelduta datzanaren gorputza "jeiki zaite" berbaen bidez, piztu. Alperrik alde batera edo bestera jo: gertaera ori, goi-indar batek bakarrik explika daike. Goi-indar orren interben zioa ager eragitea, philosophiaren arazoa.

d) **Theologi-arloan:** Spiritu gaiztoak ez-baiña, Jaungoikoak, edo Jainkoaren mandatuz angeruak egin dabela, erakutsi bear da. Orretarako, yazoeraren barna aztertu bear da: ¿zertarako egiña? ¿zein da bere azken-jomuga? ¿Nork egin dau? Sarritan zailla izaten da galdera oneri erantzutea, baiña Jainkoaren eskua erditik dabillanean, aztarna argiak jartzen ditu. Egi theologikoak miraria argitu egin bear du.

e) **Egi relativoa:** Mirari-egilleak, Revelazinoaren ezau pidetzat dakarguzanean, bere eginkizun arrigarriak, egi relativoa eskuan dugu. Ezta egiñaren. Ezta egiñaren apologetika-aplikazino baizik. Alantxe, Apostoluak, bere doktrinaren ager pidetzat, aunitz mirari egin eben.

Jesusek, aleun mirari egin ebazan bere irakatsien

sendo tuteko. Ikus, azalatik baiño ezpa da-be, bere lau Evange-
lioak. Amaika bene-benetako mirari, nai theologi-arlotik, nai
philosophiaren arazotik. Egi relativoa, bere itzetan daskein
kigu.

Eztago, izan-bere, lepotik burua ta buruan garaunik
dabenentzat, ukatuterik, egitan.

Elizaren Magisterioari begira.

Elizaren Erligio-guzetan, azken-erabagia Elizaren
Magisterioak du. Jainkoaren laguntasunarekin, utsezifia-
turri legez autortuten dugu.

Eska dago, bada, bere itza.

"Si quis dixerit, revelationem divinam externis signis cre-
dibilem fieri non posse, ideoque sola interna cuiusque expe-
rientia aut inspiratione privata homines ad fidem moveri
debere: A.S. (D.1812)

Argi dago: mirariaren possibilitatea ta ezaguera,
fedezkoa da.

"Si quis dixerit, miracula nulla fieri posse, praeindeque om-
nes de his narrationes, etiam in Sacra Scriptura contentas,
inter fabulas et mytos ablegendas esse; aut miracula certo
cognosci nunquam posse nec iis divinam religionis christia-
nae originem rite probari: A.S." (D.1813)

Azalpenik eztu bear. Mirariaren possibilitatea u-
katuten dabena, anathema izan bedi; Eskritura Sainduetako mi-
rariak, egi egizkoak dira; ta mirariak ezagutu bakarrike ez-
baifia, Jainkozko-doktrifia sendotu ta ziur biurtuteko egoki
ta bidezkoak dira.

Auxe da Eliza Ama Santaren itza, ta gogamena. Gur-
tu dagigun.

Berasaluze'tar Sabin.

Arantzazu'ko teologilaria.

ZERURATU AL IZATEKO ELIZAREN

DAUKAGUN BEARRA.

Aitzin-solas:

Irakurle jator, itz bi besterik ez, baña auetxek ondo esan nai nizkitzuke. Esan bearrik eztaukat, elburu bakar berak eragin digula aldizkari oni argi ematera. Eta elburua bat bear dugunez, asmo-naiak ere berdin ditugu: elkarri lagunduz gure euskera jatorra jakintza-soinoko z jantzi. Soñieko onek nolako bear dun, ordea, bi ezta-baida dauzkagu: mordollozaleak eta garbi-zaleak.

Nik ez dut emen auzirik erabakiko, ebaki baizik. Gero, lanaren luzeeran zeuk ikusiko nazu nun saidu. Baña afen entzuidazu auxe: emen darabilzkigun gaiak goi-xamarrekoak ditugu; eta irakurleak ere ikasiak, bai euskeran eta bai galletan. Au dala-ta, indar-neurketa bat bezela egin dut nik euskeraz. Ia zenbateraino erabilli dezakedan nik jakintza gauza bat alik eta geien euskeraz.

Ontarako gutxi-asko itz berriak asmatu ere egin ditut. Eta beti bezela, batzuk ongi ta bestetzuk gaizki izango zaizkit.

Lanketa au guzion onerako dugun ezkeru bata beste ari lagundu bear genioke, eta alik geiena bat-ekorri, indartsuago izan gaitezten. Ori dala-ta, bai nere itz suek, eta bai beste edonork leharzkenak, zuzen ez baderitzazkigu, bakoitzak bere iritz-epaia eman dezala. Onela, lagunartekoago izango dugu arlo au, ta errezago lortuko dugu geure elburu au.

Nik asmaturiko ta berez ulerkaitz diran itzak edo itz-joskerak, lanaren ondoren ezarriko ditut, iztegi legez.

Zeruratu al izateko bearrezko diran bideak.

Aburuak.—Iru sailletan banatu genitzazke aburuak:

a) Gutxi egizaleak. Edo zeinzaleak dira. Ona zenbat ~~mita~~

1) Bizitza oneski eramán ezkeró, batere erligio gabe edo edozein erlijio rekín salbatu ditekela diotenak.

2) Erlijioa bearrezko da; baiña edozein izatea aski da.

3) Kristau ez diran erlijioekin ezin zeruratu diteké; baiña kristau diranetako edozeinekin bai, eta katoliko izatea ezta prexixo.

b) Ziurrak.—Zeruratu al izateko erlijio bat euki bear da; eta erlijio orrek kristau eta katoliko izan bear da. Beste era batera: Zeruratu al izateko derrigorreko da Eliztar nolabait izatea.

c) Gelegizaleak.—Zeruratu al izateko izatez-eta-be-rez edo "inre" izan bear da Erromako Katoliko Eliztar, eta gogoz izatea ez da aski. Berebat, Elizatik landa dauden guzti guztiak ondatu egíñen dira. Onela Feeney (joseph laguna) eta bere tarrak.

Egizko aburua bigarrena da, eta onela ezarriko du gu:

Azalkizuna.—Zeruratu al izateko derrigorreko da Eliztar nolabait izatea, eta bidearen bearrez da derrigorreko gáñera.

Jakiteko ikurkizun batzuk:

Zeruratzea: zerura joan eta Jainkoa aurpegiz aurpegi ikusi eta gozartzea da.

Derrigorrekoa: edo jomuga bat lortzeko ezin gabetu ditekena. (Bearrezko izatea bezela darabilt emen, baiña onek baiño geiago (?) esaten du). Bi eratako izan diteké:

I) Aginduzkoa: jomuga bat iristeko ezin gabetu ditekena da; baiña "ezin gabetze" ori gauzaren izatetik ez da-torkio, eskubide ba-daukanak agindu egin dualakotik baizik.

Orregatik oartxo bat egin bear da emen: alegia, agindu bat dagoala or, eta agindu orren petan daudenentzako bakarrik dala agindu ori; edo berdin dan au, beren erruz agindu ori be betetzen ez dutenak bakarrik ezin salbatu ditezkeela. Jarra-
ikizun:

- 1) ezaguerarik ez daukatenak (aurrak, zoroak...)
- 2) agindua ez dezagutenak, bafia beren erru gabe,
- 3) agindua betetzera ezinduta daudenak,
- 4) agindua betetzetik askatuta daudenak,

errurik ez daukate agindua ez betetze ortan, egon ere ez bai daude beronen petan, eta badezakete jomuga iritxi. gurek guztiak

II) Bidearen bearrezko derrigorotasuna: jomuga bat lor-
tzeko ifiola ere ezin gabetu ditekenean da, arazia (efekto) araz
leari, edo baldintz "ezingabetuari" bezela baldago jomuga
zergauza orri menpetuta. Orregaitik ez gaiti (kausa) askatza
llerik eta ez bestelakorik, ez dago emen; ezta errugabe iza-
terik ere.

Bidearen derrigorrezkotasuna au bi eratako izan
diteke:

1) Izatezetaberezkoa: edo "in re": gauza bera izan be
arrezko eta bestela ezin ordeztu ditekenean. (Es. bat.: zeru-
ratu al izateko bearrezko da Jainkoaren adiskide izatea).

2) Bitanbatekoa, edo "in re" edo gogo z: bearrezko gauza
ren gabea beste ordeztu batez bete ditekenean. Bafia bearrez-
ko dan zergauza ortaz jabetzeko gogo euki egin bear da ala
re. Gogo au esanbidezko edo ixilbidezko izan diteke. (Es. bat.
: maitutsezko egintza bat; Jainkoak agindutako guztiak bete-
tzeko prestamena).

Bidearen bearra bi auetatik sortu diteke:

a) bide orren izatezgotik bertatik. Au ezin ordeztu
ifiola ere. (Es. bat.: begia, ikusi ikusteko).

b) baltzuburuak, ortarako eskubide badaukalako, bidea
ren eta jomugaren artean artueman ori ezarri dualako. Au, bat-
tzutan ordeztu diteke (edo izatez-eta-berezko edo gogozko
beartasuna), eta beste batzutan ezin ordeztu diteke (izatez-
etaberezko beartasuna).

Ona ba zer diogun:

Zeruratu al izateko derrigorre

ko da Eliztar izatea; aginduzko beartasunaz bakarrik ez, bi-
dearen beartasunaz ere bai; baiña gauzaren bearen izatezgo
agatik ez, Jainkoaren nai baibidezko agatik baizik; eta au e-
rabat edo izatezetaberezko ere ez, baiña gogoz beñepein bai,
eta gogozko ori ixilbidezko izatea aski da.

1.- Ukabidezko agerketa.

Gutxi egizaleentzat au esango dugu:

Gizona, beñe irazaleare-
kin daukan izatun lokarriagatik, beartatuta dagola erlijio
bat eukitzera, eta izatezko erlijio ortaz gainera beste bai
bidezko erlijiorik baldin balego au ere aztertu eta ezagutu
egin bear lükela; eta Jainkoarengandiko balitz onartu ere bai.
Gero, oster, Jainkoak goiagertutako baibidezko erlijio
ori kristau erlijioa dana ere agertuta dago; eta azkenik, Je-
sukristok erakutsitakoa Eliz Katolikorrek daukana ere bai.
Au dala-ta ez dugu zertan jarraiturik geiago auen kontra.

Geiegi zaleentzat au esango dugu: Gutxiasko danean, geiagoren
bearrik eztagola jomuga bat lortzeko; eta Eliz iruzurgaitzel-
zeruratu al izateko gogoz Eliztar izatea aski dala eraku-
tsi du. Ez dago, ba, geiagoren bearrik.

2.- Baibidezko agerketa.

Ikusi dezagun lenengo zer dioten Idazteunak:

Jn. 3.5.: "Uretatik eta Gogo Gurenetik berriro jaiotzen ez
dana, ezin sartu diteke Jainkoaren Jaurerrian".

I kor. 12, 13: "Gu guztiok, naiz Judu, naiz Atzerritar, naiz jo-
pu, naiz libre, gogo batetan soin batetarako bataiatuak gera"

Au daukagu Idazteunetan. Eta ikusi bestrik eztago
zertaz dioten asmatzeko. Zeruratu al izateko bataioa beañez
ko dala, alegia.

Jainkoaren jaurerrian sartu al izateko jaurerri ber-
tako bizitzara jaio bear da. Emen, bada, erkatu egiten dira bi
jaiotzok: lurrekoa eta zerukoa. Lurreko bizitz-ontaratzeko,
berriz, jaiotzea bide-bearrezko dan bezelaxe, Jainkoaren jau-
rerriko bizitzaratzeko ere berdin berdin da bataioa.

Orain galdera bat jarri genezake emen, eta erantzun netatik dakuskegu bearrezko danetz Eliztar izatea.

Bataioak zert egiten du?:

1) Grazi sentutzaldea eman. --Ez, jauna, lenengoenik beintzat. Bataioak bai-badezake bere gai-atz kendueziña ezarri ta grazirik batere eman ez. (Pekatu astunetan artzen danean). Bataioaren arazi lenengoen, bada, ez da grazi ematea.

2) Eliztar egitea. --Au bai beti egiten du bataioak, naiz eta bataiatua pekatu larritan egon. Berauxe erantzutendigu S. Paulok ere "soin batetarako bataiatuak gera" esatean. Bataioak, bada, Kristoren soinki egiten gaitu, edo Eliztar. Ona orain Eliz Irakaslearen agiriok ere:

Florentziko Eliz-Biltzarrak: "Sakramentu guztien artean len-tokia Bataio sakramentuak du, eta gogo-bizitzarako atea da; berorren bidez egiten bait gera Kristoren soinki eta Elizaren gorputzeko. Eta len-gizonaren bidez orotan sartu bait zan eriotza, baldin uretatik eta Espiritutatik jaio ez bagaitz ezin sartu gindezke, Egiak dion bezela, zeruetako Jaurerrian". D. 696.

Berdin Trentoko Biltzarrak ere: "...argi ta garbi dago, ez dala bearrezko bataio ministroa epaillle izatea; ez bait dio ifiori auzirik Elizak egiten, bataioaren atetik bertora sartu dakion baiño lenago." "Zer gero, dio Apostoluak, kanpoan daudenak ere epaitu? (I Cor. 5, 12.). Bestela da fedearen etxekoetaz, Kristo Jaunak bataio garbigarriaz bere gorputzaren soinki bein egin dituanetaz". D. 895.

Gañera bataioaren ezaugarria grazia ez da, au galdu egin baiditeke, ta bataioaren ezaugarria edo atza ez. Au dala-ta, ezin artu diteke bitan bataioa. Eliztar izatea edo kristau izatea, berriz, naiz eta ildako soinki izan, beti Eliztar izango da.

Orain arte bataioa derri gorreko dala zeruratzeko, eta bataioaren ondorio berezia Eliztar egitea dala ikusi dugu. Emen, berriz, bataio-bearraren neurria edo bidearen bearrezko z dala dakuskegu.

Idazteunak digunez bidebearrez da derrigorreko Kristorena izatea zeruratu al izateko:

Jn. 3,14-18: "Eta sugea basoan Moises'ek gora jaso zuan bezela, Gizasemea ere gora jaso bearrekoa da, Argan sinistuaz inor galdu ez dedin; eta guztiek betiko bizitza euki dezaten. Izan ere, Jainkoak gizadia orrenbeste maite izan duala-ta, Bere Seme bakarra eman dio, Ortan siniste izanaz, galdu ez dedintzat; eta guztiek betiko bizitza euki dez tentzat. Ez du Jainkoak bere Semea giza-ebazletzat lurrera bidali, Beronen bidez gizadia zeruratu dedin baizik. Argan siniste daukanarentzat auzirik ez dago; ez daukana, berriz, guzituta dago, Jainkoaren Seme bakarragan sinisterik ez daukan ezkeroxe".

Akt. 4,12.: "Eta osasunbiderik ez dago beste inorgan. Osasuna iristeko ez bait zaigu beste izenik zerupean gizonoi eman".

Errom. 5,12.15-18: "Beraz, gizon baten bidez sartu zan pekatua munduan, eta pekatuaren bidez eriotza; eta orrela gizon guztietara banatu da eriotza; guztiek egin baldute argan pekatu". "Baiña ogen-eduz, goi-eskerra ez. Izan ere, baten orenez guztiak il badira ere, oso ugariago izan da guztiontzat Jainkoaren grazia, eta gizon bati, Jesukristori goieskerak egindako emaria. Eta pekatua bat bezela doia ere bat, ez. Epaia batengandik baidatorkigu ondamenerako: daia, ordea, pekatu askotatik zindokuntzarako. Baten utsegifiaz, batengatik erio nagusi izan bada, goieskerra, emari ta zindokuntza erruz artzen dutenak ere beste batengatik, Jesukristorengatik, bizian nagusi bidezago izan dira. Beraz, baten biurrikeritik gizaki guztiengana ondamena eldu dan bezela bizirako zindokuntza ere baten zindotasunetik eldu da gizaki guztiengana".

I Tim. 2,4-6: " (Jainkoak) gizekume guztiak gaizkatzea eta egiaren ezaguera iristea nai du. Izan ere, bakarra da Jainkoa, eta bakarra Jainkoa ta gizonen arteko bitartekoa ere, Jesukristo gizona, bere burua guztien jareikuntzarako ordanetan eman zuana. Au da garai egokian zuritutako aitorra".

Baiña, kristorena izatea bearrezko bada, ezin izan

diteke iñor Kristoren, Eliztar izateke. Ona berriz Idazteuna:

Jn. 17, 18; 20, 21: "Gizartera bidali nazun bezela, Nik ere gizartera bidali ditut". "Pakea zuei. Aitak ni bidali nun bezela bidaltzen zaituztet nike ere".

Emen, Elizaren langaia eta Kristorena berdindu egiten ditu; eta bata, Elizarena, alegia, bestearen jarraitzalle bezela agertzen da.

Lk. 10, 16: "Zuei entzuten dizutenak ni neuri dantzait; eta zuek zabartzen zaituztenak ni nerau zabartzen nau. Ni zabartzen naunak berriz, Ni bidali nauna zabartzen du".

Mt. 28, 20: "Eta nik erakutsi dizkizuedandk betetzen erakutsi iezute. Eta ona, ni zuekin izango nauzute mendeen azkenetaraino".

Orra argi ta garbi esanda Kristoren izan nai denak Eliztar izan bear duana. Eliza, bada, bidearen bearrez da derrigorreko zeruratu al izateko. Gaiñera, ordea, zerau esan dugu: "edo izatezetaberez edo gogoz", ixilbidez benik, bearezko dala, alegia. Edo ez dala prexio "in re" Eliztar izatea, zeruratu al izateko. Azkena nai duanak tartekoa ere nai du, eta maitutsezko egintza bat egiten duanak, ezkena dan zindokuntza nai du; tartekoa dan bataioa ere bai, orduan, ixilbidez bederik.

Maitutsezko edo maitedamuzko egintza bat egiten duanak, lortzen du zindokuntza:

Mt. 22, 37-40: "Jesusek esan zion: Zure Jainko Jauna biotz-biotzez, gogoz-gogoz eta adiñ-adiñez maite ezazu. Auxe da agindu aundia eta lena. Bigarrena, berriz, onen berdintsu da; zure urkolaguna zure buruari bezela maite ezazu. Agindu Agindu biotatik esegita daude Lege osea eta Igarleak".

Jn. 14, 21-24: "Nere aginduok euki eta betetzen ditu anak, orretzek maite nau ni. Ni maite nauna, berriz, maite izan go du nere Aitak, nik ere maite izango dut eta agertu egingo natzaio. Judasek, Iskariotek ez besteak, zerau diotsa: Zergatik guri bezakizkigu agertzen eta bestelako eri ez? Jesusek erantzun eta esan zion: Iñork maite banau beteko du nere esan au,

ta nere Aitak maite izango du; ta orrengana etorri eta ego-
itz egingo dugu berorrengan. Maite ez naunak ez du aintzat
artzen nere itzau; dantzuidezutea itzau ez da nere, gero, bi-
dali naun Aitarena baizik".

Errom. 13, 10: "Karitasunak ez dio urkolagunari gai-
tzik egiten. Beraz, karitasuna legearen betzea da".

I Cor. 13, 1-8: "Gizonen eta aingeruen izketa oro-
taz egifarren, karitasunik ez banu, tupiki ta txilin burrun-
baria bezela nintzake. Ta igarmena eukiarren, eta izkutuki gu-
guztiak eta jakingarri guztiak ezagutuarren, eta mendiak al-
datzeko azekarra nere sinistean izan arren, karitasunik ez
banu ezer ez nintzake. Ta daukadan guzti au landerretan banatu
ta nere soñau erretzeko emanarren, karitasunik ez banu, ezer
tarako ez litzaidake. Karitasuna biotz-zabal da; karitasuna
biotzbera da; karitasunak ez du bekaitzik, ez parrasteririk,
ez arrokeririk; ez da eragabe; ez da berekoi, ez sakerre, ez go-
ganbearti; ez da okerkeriaz pozten; ostera, egia du atsegiñ;
dana onartzen du, dala sinisten; dana itxipiten, dana jasaten.
Karitasunak ez du okegiten. Igarmena, bai, aituko da; izkuntza
ere bai, ixilduko dira, eta jakintza ere itzali egingo da".

I Pet. 4, 8: "Batez ere elkar maite ezazute. Karita-
sunak estali egiten bait du pekatuen kopurua".

I Jn. 4, 7, 16: "Ene maiteok, maite dezagun elkar; ka-
ritasuna Jainkoagandik bait dator eta maitasun daukatenak
guztiak Jainkoagandik jaio dira, eta Jainkoa dezagute. Karita-
sun gabeak Jainkoa ez dezagu; izan ere Jainkoa karitasun bai-
da". "Ta guk Jainkoak digun maitasuna ezagutu dugu eta si-
nistu. Jainkoa karitasun da eta karitasunean dagona Jainkoa-
gan dago, eta Jainkoa berorrengan".

Gaizkakuntza Jainkoak bidali digun Jesukristoagen
sinistea da; eta maiutsezko egintza bat dagianak, idazteune-
tan ikusi dugunez, maite du Jesukristo, "onek esana bete egi-
ten bai du". Kristok esandakoen artean, berriz, Eliztar izatea
dago; eta orregatik esanbidez aitortzen ez badu ere ixilbi-
dez beñepain aitortzen du maitutsezko egintza bat jartzen
duanak; alegia, Jesukristok esandako "Eliztar izate" ori ere
bete nai duala. Itza jatea litzake bestela Jainkoa maiteu-

tsez maite izan eta Jainkoak esandakoa ez betetzea. Gaiñera Jainkoak esana betetzen duanaren biotzera Jainkoa bera eto rriko omen dala digu Idazteunak. Nola, ba Jainkoa biotzean e uki eta ezin zeruratu?

Ona agertuta gure azalkizuna. Orañfarte Idazteuna tan aitorrak bakarrik ekarri ditugu; au iritzi bait zait bi derik egokiena; lenengo Idazteunek zer dakarten ikusi, gero gai berontaz Elizaren Irakaslegoak eta antzinateak zer dio ten agertu. Au zindogarri bezela.

Elizegala:

Osasuna iritzi al izateko Eliztar izate bearrezko dala: zifnegi.

Bidearen beartasunez dala: theologiki ziurra, zeruratu egingo bailirake bestela bataio gabe iltzen dizan aurak.

Bidearen beartasun au edo izatezetaberez edo gogozko dala: Jainko ta Katoliko-fedeazko.

Elizafixirik. - Zeruratu al izateko bataioaren beafaz: D. 796.

Elizaren bidebearrezko tasunaz: D. 423 - 430 - 468 - 741 - 1473 - 1647.

Ona Pio IX'ak bere "Sylabus" etan ezetsi zituan esekunok: D. 1716 - 1717 - 1718.

Edo "in re" edo "in voto" zko bearra, eta au ixil bidez beintzat: ikusi len aipatu dugun D. 796 "...sive lavacro regenerationis aut ejus voto non potest"... dioneko artan.

Ona Pio V'gnak. ezetsitako esakun auk: D. 1031 - 1032 - 1070 - 1071 - .

Auetan zerau dakusgu argi ta garbi: alegia, ezin ditekela maiteutsezko edo maitedamuzko egintza bat egin bitza bertanbera txautu gabe. Eta lenago agertu dugunez, maite utsezko edo maitedamuzko egintza batek berez derama Eliztar izateko gogo, ixilbidezkoa be derak. D. 1647 - 1671 - .

Eskoliona. - "Eliztar izan gabe ezin zeruratu" Zer dikur "Eliztar" izate orrek. Feenneyk dionez izatezetab...

izan bear dala, eta gogoz izatea, besterik ezifietan daudenentzat ere ez dala aski.

Lenengo oartu dezagun au: Elizaren bear ori Jainkoak bere gogoz ezarritako da; eta orren adirazinaietan illunpezik balego Jainkoak berak, edo beronen ordeak egiten dituzanak, garbitu bear duala. Edo nor batek erabakitzea, bada, ez da egoki fedegauzetan.

Eta ain zuzen beraxe egin du Feenneyk; alegia, Elizaren erakutsia ondo aztertu gabe bere buruari ala eritzi zaion bat eman, "zeruratu al izateko izatezetaberez izan bear dala Eliztar" erakutsiaz.

Au, berriz, orainago ezarri ditugun Elizagiritan ikusi dugunez (edo izatezetaberez edo gogozko beartasuna Elizagiritu dugunean), Elizamak deskana baiño geiago deska Feenneyk; gainera Elizak golerabakitako egien kontra eta ezetsitako makurren alde doa, ixilbidez biderik. Ain zuzen; Eliztar "izatezetaberez" izan bear dala ezartzean ukatu egiten da maiteutsezko ta maiteadamuzko egintza batek ixilbidez gordetzen duan "gogo"-aren askitasuna. Eta,

a) au ola izaki, nola zindotu Jainkoak orok zeruratuenai dituala derakuskian doktrinag?

b) Elizantziñateak eta esanbidezko Elizerabakiek erakutsitakoaren kontra doa.

Ona Siofizioaren ezetsiaren zergaitia. Ezetsi ortatik artutako zati batzuk emango dizkitzut emen:

"Elizak beti aldarrikatu eta aldarrikatzeaz ifioiz ere utzi ez dituanen artean, arako esakun iruzurgaitza ere badago: Elizatik kanpo ifiolako osasunik ez dagola, derakuskiguna, alegia. Baña zifñegi au, Elizak berak ulertzen duaneko esanai berean ulertu bear da"...

"Eta ain zuzen Elizak zera dio... ez da ifior salbatuko, Eliza Kristok Jainkoagandikiro (divinitus) eraikita izan zala jakinda gero ere Elizaren mendeko egitea ukatzen, edo Erromako Aita Santuari, Kristoren lurreko Ordezkoari, mentasuna ukatzen dionik".

"Gaiñera Salbatzealleak etzuan jende guztiak Elizan sartu zitezela bakarrik agindu, baita zera ere ezarri zuen: Eliza, osasuneko bide dala, eta ori gabe ezin sartu ditekela inor zerako aintzaren jeurerrian. Jainkoaren erruki aundiak nai izan zuan zera: beren izatezko beartasunez ez baiña Jainkoerabakiz bakarrik, azken jomugara zuzentzen diran osasun-laguntzen araziak (efektoak) alabearrezko batzuetan, badiitezkela lortu osasunerako bearrezko diran arazi oiek gogo edo naia besterik ez daukatenengan ere... Ain zuzen betiko osasuna lortzeko ez dago inor beartuta Elizari, soinki bezela, benaz itsastewa; auxe eskatzen zaio baizik, berari gogoz eta gurariz batu ñakiola. Gogoe onek, katekumenotan bezela, ez dauka beti esan-bidezko izan bearrik; ostera errugabeko ezjakifietan gizonak diardunean, ixilbidezko gogoa ere onartzen du Jainkoak, eta onegatik deritza ixilbidezko, alegia, gogoa-ren prestasun onean, ots, gizonak bere gogoa Jainkoaren gogoa-arekin berdina nai lukeneko ortan sortzen dalako".

"Eta Enziklika-Eskutitzaren azken aldean, berriz, (Pio XII'ren "De Mystico Jesu Kristi Corpore" alegia) Eliza Katolikotarraren sailleko ez diranak biotz-biotzez batasunera deituz, arako ("qui instio quodam desiderio ac voto ad Mysticum Redemptoris Corpus ordinentur"); eta inola ere ez dituditu betiko osasunetik saiesten. Bestaldetik zerako egoeran daudela dio "in quo sempiterna cujusque propria salute securi esse non possunt... quandoquidem tot tantis coelestibus adimentis carent, quibus in Catholica Ecclesia frui licet".

Begiluzedun itz suekin bai ixilbidezko gogoz bakarrik Elizari datxakiotenei betiko osasuna ukatzen dieten guztiak ezesten ditu, eta bai edozein erlijiotan berdin sartu ditekela gezurrez diotenak. Erroman emana, S. Ofizioaren egonlekuetatik, 1953. Otsailak 13".

Argiago ezin esan zezakean Elizaren izatez-eta-berezeko bearri ezdagona. Aginduzko beartasunez dana Eliza, berriz, orain arte esandakoen ondorio bezela baldator. Ain zuzen jomuga bat iritxi al izateko bidebearrez derrigorreko dana aginduzko derrigorrez ere bada, jomuga aginduta baidago. Oraingo eresi ontan, berriz, zorrotz aginduta dago jomuga edo

zeruratzea, Orduan...—Ona; Jesukristok etzuan erakutsi baka
rrik egin zeruratu al izateko bataioa bearrezko dana: ("Ure
tatic eta Gogo Gurenetatik jaio izan ezik ezin sartu ditek
iñor Jainkoaren Jaurerrian" (Jn. 3, 5.)) baita agindu ere egin
zuan sakramentu su ematera eta artzema: ("joan eta erakutsi
gizon guztiei, Aitarene eta Semearene eta Gogo Gurenarene ize-
nean bataiatiaz" (Mt. 28, 19)) "sinistu ta bataioa artu dezana
gaizkatuko da; sinisten ez duana, berriz, ondata da egileen"
(Mk. 16, 16)). Bataiotara agintzeak, berriz, berekin derama E-
lizan sartzea, orduan...

Azkenik, Elizantziñatea ekarri, bestrik ezteukagu e
esan ditugunon zindotzeko.

S. Inazio: (107) "Elizaren batasunera itzuli ditez
oro, eta auek Jainko izango dira... ez iruzurtu nere anaio
k; ansiketa (schisma) dagionari iñork balerraio, ez du iritziko
Jainko-erriko ondarea". R. 56.

S. Irineok, S. Kiprianok, Laktanziok, eta abar, berdin
tsu diote, Orijenes ek argi ta garbi dion au: "iñork jareñ
nai baleza betor etxe ontara... Etxe ontatik kanpo, ots, Eli-
zatic kanpo, ez da iñor gaizkatuko". R. 573.

Gero, berriz, S. Jeronimo, S. Agustin eta S. Fuljentik
"Sendo, sendo eutsi, oro... aurkez dutela Eliza Katolikotarra
tik landa iltzen direnak, betiko sutara joanen dira". R. 22 -
75-2273-.

"Elizatic kanpora salbatzerik ez", izango dugu
gure amaia.

Mendizabal dar Fernando (ofm)

Arantzazu ko teologilari.

Erabili --itzak

Bide:medio	---	Iruzurgaitza:infalible.
Gutxiegizaleak:los que pecan por defecto.	---	Bide-bearrezko:necessitate medi.
Edozeinzale:indiferentista.	---	Gai-atz:carácter, señal.
Ziurzaleak:los que están en lo justo.	---	Soinki:miembro.
Geiegizaleak:los que pecan por exceso.	---	Eliz Irakasleago:Magister.Edl.
Ondatu:perderse, condenarse.	---	Agiri:documento.
Azalkizuna:tesis.	---	Garbigarria:lavaero.
Ikurkizun:noción, significac.	---	Ezbigarri:señal.
Jarraikizun:consecuencia.	---	Zindokuntza:justificación.
Ezinduta:imposibilitado.	---	Langai:oficio.
Arazia:efecto.	---	Aitorra:testimonio.
Arazi ea:causa.	---	Antzinate:tradición.
Baldintz ezingabetua:conditio sine qua non.	---	Zindogarri:confirmans.
Gaiti:causa:.	---	Elizepala:censura eclesiást.
Askatzaille:excusante, dirimen- te.	---	Ziflegi:dogma de fé.
Bitanbateko:disyuntivo.	---	Ezetsi:condenar.
Esanbidezko:explícito.	---	Elizagaititu:probar con docu- mentos de la Iglesia.
Ixilbidezko:implícito.	---	Goierabaki:definir(laIgles.)
Izatezgo:naturaliza.	---	Elizerabaki:declaración de la Iglesia.
Baltzuburu:jefe de una sociedad.	---	Jainkoagandikino:divinitus.
Baibidezko:positivo.	---	Eliztar izan:pertenecer a la Iglesia.
Ukabidezko:negativo.	---	Izatez-eta-berez:in re.
Irazale:creador.	---	Agerketa:expositio.
Izatan+lokarria:relación en- titativa.	---	Derrigorrekoa:necessitas me- dii.
Goiafertutako:revelado.	---	Aginduzkoa:necessitas prae- cepti.

Oartu:itzok ia guztioek egilleak asmatuak dituzu.Saiake-
ta bat bezela duzu,berak dionez.Atsegifin?Au ta aurreko lana
bi euskera-mota ezberdinetan idatzirik dituzu.Zein argigo?

A I T A S A N T U A R E N
I T Z A

Lan bearrezkoa derizkiot Aita Santuaren itz eta erakutsiak euskeraz ematea. Izan ere ez al degu Bera oso-osoan Kristo bigarrena?, ta ala danez bere itza Kristoren itza degu "Bide, Egi, Bizi naiz" zionaren itza.

Ase dezagun, bada, euskladun denok gure jakin-egarrria benetako iturri ortan, Kristoren Ordezko nagusiaren ez pafetatik darion ur bizi, garbian.

Baïen ortarako gure elean jarria bear genuke itz ori, gure mintzoan azaldua, errextua..., ta ori apaizok, gure e egitekoa degu.

Ara emen asteko, Aita Santuaren garagarrilleko itz lanen laburpen bat.

~~~~~

1965. Garagarrilla

3an : Italikoko neska-taldeari :

Aita Santuak zesaien : "...zuek bizi zeraten etxe en, jabeak zuen buruz nagusi ez baïo aita on izatea litzake nere blotzaren atseginiik biziena!". Ta gañera: "Gorputz begie kin gizon utsa dakuzute zuen nagusietan, sinismen begiz, oge dea, Jesukristo ber-bera.....Ez dagizute gero zuen berdin edo iñoiz kaxkarrago zaizuten gizonen esana, Jainkoarena bai ño".



3an : Vienako Ikastetxe Nagusiko lege-gizonai:

"Kristoren Eleizan oro, animen osasunerako dezute; zuen ikasgai edo jakintzagai ori ere, beraz, ortara zuzendu bearrean zerate, ots: salus animarum ori iristearren".

9an : Erri-Kutzaren 8'garren erriarteko Batzarrari:

Gizonarteko bizitzerik bai ote bakoitzak bere norberatasun motxean itxuturik, elkargoaren onari begiratzen ez badio?... Orregatik, bada, txalotzen du biziki "Crédito Popular edo Erri-Kutxa" sortzeko izan zutenaren askakizuna. Izan ere, Erri-Kutxa'ren egitekorik lenena, bere esku an gizonak -bere "bakarrean" arturik- jarri duten dirua, gero askoren onerako izango diran lan-eginkizunetarako zabalitzea ez ote? Onak berak erakusten digu beraz, aukeratzen aste an, geroren onari baño betse gizonen onari geiago begiratu bear geniokela.

Baita ere erakusten digu, gure bear bakarra buruan izanik, gerokoaren ajolarik gebe bizi izango baginake ere, besteen onari begiratzen bagenioke, gaur "egun on" eta biar "or konpon" esaterik ez genukela.

Labur, lagunurkoaren onari dagokionez, begizabaleko izan bear genukela erakutsi nai digu Aita Santuak.

11an : Argitaltzalleen Erriarteko Batasunaren 14'garren Batzarrari. Itzaldia.

Idaztiak, iritziak iturri ta beraz jakintz-ituit diralarik, aur eta gazteen azkeran duten garrantziaz mintzatu ondoren "... irakurleari alde batetik, egi ta onari bestetik zor zaien begiruneak, argitaratu ondoren, adimenetan zurrara egiñen duten idaztiak ord, sakonki aztertzea beartzen ditu argitaltzalleak", desale. Eta aolku berezi batzuk damazkie: "... diru-goseak ez zaitzatela itxutu; ontzat irizten dan gizonak ori ez dagi". Aññ zabaldua dan eta amari aññ txafak eman oi dituan elerti lotsagarriaz gogor itzegiten die, eta esaten, elerti lizun-tzar orren orde, elerti on eta garbi bat sortzearren alegiñak egiteko.

13an : Indonesia'ko Laterriren Lendakariari. Itzaldia.

Bere errian Erlijioaren alde azken urte auetan egin dituan lan eta alegiñak pozten dutela benetan, agertzen dilo Aita Santuak. Gero, "...Kristoren agindua bear bezela betetzeko, Eleizaren egitekorik nagusiena erri guztietan bear tako apaiz-talde bat gertutzea da". Ortara irixteko urteetako lana bear dala agirian da. Orrebatik, bada, bitarte ortan "erri bateko katolikoak beste errietako anaien laguntzaren baarrean izango dira".

15en : Barzelona'ko gogo-jardunetako taldeari. Aolku.

"Iñaki Deunaren Gogo Jardunak gaur bertan ere egun-eguneko dituzute, eta itz bat, munduak entzun gabe utzi ez dezaken itza, esaten ari zaizkigu".

22en : Janari-Banatzalleen 3'garren Batzarrari.  
Itzaldia.

Beti eta guztientzat du Aita Santu onek itz e-goki eta zuzendari bat: "merkatzen salatu, saltzen duñaz erantzutza al izan, erostera datorrenari errextasun oro eman -surrean ugari duanetik aukera izan dezan-, ara emen banatza- lleanen egitekorik lenena". Zintzo jokatzeko dasaie, erosle-ari buruz, gezur eta okerrik egiteke.

25en : Arko'tar Jone Deunari izen ona itzul zioten eguneko bostgarrenez eunurte betetzean.

"Aize astindu batek, lañoak urratu-rik itxas-gizona kañara zuzen eramango duan izarra agiri-agirian uzten duan eran, Jañkoak ere, erri baten egunik beltz edo illunennean, erriarentzat osasun izango dan gizakia bidaltzes, ez da bate re arritzeko. Arko'tar Jone Deuna gañera, gaur-eguneko kristau ok, auetan degu eredu, ots: Erro-sakoneko sinismenaren jabe izatean, zerutar agindu edo deia itxu-itxuan betetzean, eta em bear edo jasan-bear guztietan erakutsi zigun egonarrria erakustean."

26en : Milan'go Eritegi Nagusiari. Bostgarrenez eun urte betetzean.

"Eritegian Kristo berak duala tokirik nagusiena,

dio Aita Santuak : "Eritegi erdi-erdian eleiz bat izateak, eta Ontan Jesusek bere egiazko egoltza duan kutza, ogiaren antzirudipean izanik ere, ara adieraztera zer damaigun:

"Esan nai digu: Kristoren izenean sendatutako ga-xoeriak, bere animen Erroale, biotzen Pozgille eta bere gorpu tzen Sendagille zerutarra, Kristo bera dutela.

"Esan nai digu: Jesus gure arteko bat izanik, -ogi aren antzirudipean eleizan, eta gaxoaren biotzean era izkutu arrigarrian-, Berak ondo iritziko ez duanik, ez dezakegula ez gogoratu, ez esan, ez da ere egin.

"Esan nai digu: Norbait gaxo ikuste berak sistatzen begaitu, bere animari gaitz egiteko, erruki sundi eta itxusi-enaren errudun gerala.

"Azkenik : eritegikoak oro, bere alen neurriam nos-ki, animen osasun ord. lortzearren, beren eskuen dagoena egite-ra beartuak dagozela"...

29an : Stepinak, Mindzenty, Wyszynsky Eleiz-Artzai eta komunista menpean dauden efi-alde aietako bes-te Artzai eta Kristauei.

"Egiatzko sinismenaren jabe izan eta bera guztien surrean agertzeagatik era guztietara jo tan zanpatuak izan zeratela badakigu, eta negartzen dugu... Baifia gelenik ukitzen gaituena aurtxi ta gazte taldea Jainkoagendik aldentzearren beran adimenak kaltegarri zaizkien gezurrezko jakintzaz be-tetzeko etsaiak dagizten alegiñak ikustea da".

Nagusi komunista menpean orainarte jasan bear i-zan dituzten ukaldietan, atsekabeetan... ain gizonki jokutzen jakin izan dutelako, bere eskerra agertzen die. Bañan urte beltz-illun auek aurrerakoan ere laguntzeko itxaropenik a-gertzen ez dala oartuaz eta batez ere, ainbeste urte zigor-pean arkitzeak bizkorrenaren biotza ere okiltzeko egokia dala nabaiturik...


"zaudete trinko zuen sinismenean, ta ez izutu; ezta ere esan zuem zuen barruan, Kristok erakutsia ta agindua le-gundo bearrean gerala gaur eguneko bearrak ala agintzen di-gutelako".

"Gozotasun apur bat orrela daudeneri eman nairik

Kristo Beraren itza gogoratzen digu: "zeru-lurrak igaroko dira; ez ordea, nik esana". Eta Berak ere esaten digu, Paulo deunaren aoz: "Zer diran lur ontan eraman ditugunak oro... betikotasunean izango degun zorionarekin berdintzen baditugu?". Oraingo au egun batekoa degu; gerokoa, ordea, ... beti betikoa. Orain, egun batez zigorpean izanik ere, gero betikotasun zoriotsua degu, gure.

Balerditar Yon

Lazkauko Benedikta.



## MINGABEKO ERDITZA

Itzaurre.

Aita Santuak emaniko zenbait itzalditatik bat aukeratu dizuet ene lan ontan laburki zabal dezadan. "Mingabeko erditza" gai au oso eguneko, txit jakingarri ta garrantzi sakoneko dugunez, mamia euskeraz adiraztea izan dizute ene asmoa.

Erderazko eta beste izkuntz-aldizkeritan Aita Santuaren itzaldi au ukitu ta zabaldua ikusi dizuet, eta nik ere, alegiñak alegiñ eta lagun, euskeraz eman nai izan dizuet euskerak ere mingabe erai hait-abait-dizkigu kultur-gaiak.

Ongi derizkit, eta maltasunezko egonarriz onartu ditut ene asmo onek eskeini dizkidan neke, azterketa-lan, eta era-lanak...

Aita Santuak itzaldi au esan zuneke illak, Ilbeltzak, 8 zituan. Ludi-zoko guztietatik 700 ginekologilari alkartu zitzaizkatzun Erroman, Aita Santuaren "Mingabeko erditzari" buruzko eritzia entzun nairik.

Pio XII-ak sarritan itz egan digu sendakintz-mallan; jakiña dizute, abagune orotan Zilleizti-alaetik aztertu ki ta erabakiz.

Aita Santuaren itzaldi bikain-sakonek bi atal edo sail ditu: "MINGABEKO ERDITZA"

I-Yakintz-soroan.

II-Zilleizti-soroan.

Gai oneri buruz ezin zitekean Zilleizti-soroa be- ar bezela landu, argitu, ausi, ta erabakia eman, yakitz-soroak zemaiona zeatzki yakin eta sakontzeke: "psiko-profilatiko"- araubidea legeko-zillegizko danentz Zilleizti-alderditik

sail onek, yakintz-saillak, zesalonetik erabakibo zuan.

& & &

### I-Yakintz-saillan.

Sendagileekin bat jokatu zen, berei soroan jardun zuan, berei baitan sartu, berei, arazoak yakin lehen, etika-saillak gero emanen ziena onartu zezaten.

"Psiko-profilatiko"-arabidea zer duzu?:"

-"Buru, gorputz, eta gogoaren gertutzea erditza-garairako, amaren eskubideak oro alkarturik joka dezaten, eta, egi-terakoan, semea lurreratzean amak atsegin senti dezan".-

Araubide ontan amaren-baitan (psike)-atean jotzen dugu.

Erdi-garaiak ama eztugu gaxo, erropetu bat, bere eginbear bikainen eta goienekoena, ots amatasuna, burutu nai uen emakumea baizik.

Erdi-garaiak urreratzerakoan, onelatsu ikusi oi dute bere erdi-garaiak: erditza: min.

Ama izangoak aldiro entzun izan dizu "minez aurrerago duzu". Bere baita ortara dadukazu prest. Orregatik, garaiak eldu aedinean, soma-kirioak, eta abar geiegikeriz ernarrazten zaskio, onorioak auek direlarik, minak sakon eta neke garriagoki nabaritzen ditu.

Physiologi-aldetiko minak ama-izatekoaren baitaz zer-ikusi aundi dadukate. Orregatik "psiko-profilatiko"-arabideak emakumearen baitan du bere lantokia, baita gertu bear du erdi-garairako; eta baitaren bidez gorputz osoaz nausitu, biok bat joka dezaten erdi-lanetan.

"Psiko-profilatiko"-arabidearen egokitzea.

Ama-izangoak izor-aldi eta erdi-garainakikoaz ezaguera zentza ta ertsia bear dizute izan lehen-lehenik.

Giar-, ernas-, gymnasy-yardunak egoki dituzute oso, erditza-une gorrian giar-tza zuzer jokatu dedin. Ezaguera, ordea, ez duzu aski: ezaguera ori adimenari asegarri bear zaio izan, erditza: min berdinketa au auzi aedin. Ezagutu, bada, ta

gogotan sakon beretu.

"Psiko-profilatiko"-jokabide au sifisteke ezin de zakezute ondorio osorik ardietsi alde batkorrek ezik. Aita Santuak bere itzaldian emakumearen errailetan, izor-aldi ta erdi-garaietan gertatzen diranak azaldu, ta "psiko-profilatiko"-jokabide onen berri eman ondoren, "aburu onen zer dan egi ta zer hipotesis bereiztea" egoki dala dio.

Aburu onen egi-maila erabakitzea jakintsuei dagokie. Auxe besterik ez du Aita Santuak gogotan: "egia norbera-sifiste-utsaren uztarpe estagoala, alegia, zer objektibuz kidetuta baizik". Arzu au euki bear da oso gogotan jokabide onetzaz, Aita Santuak dionez: "balezkizun oso-osoa, erabatekoa, bazter utzi bear da, ta lortu ondoreak iakintz-hipotesis ballira gogartu". B

Baña, alare, baldin araubide onen egokitzeak "mingabeko erditza" badama, au da, hipotesis au daki irargiturik badakus, itsu-itsuan eutsi dezaioke aburuari.

Aita Santuak beste arazo edo auzi batzuk ukitu ditu bere itzaldian, baietz au dualarik oinarri ta auzi-iturri: "naturak mingabe joka oi du. Erditza natur-gertakari du dugu; beraz, mingabe... Phidiologi arauz jator diran egintzak suetan erditza jatorra, mingabe bear lirake sortumaitzitik, natura bere buru aurka izengo genuke". Esakera onetzaz au dio Aita Santuak: "Batzuk egi dala ta beste batzuk auzigafi dala dioten esakera onen iakintz aldetiko erabakitzea utzi dezagun zaleen esku, au da sendagilleen lepo".

Ta zilleizti-sorora jo dezagun.

## II.-Zilleizti-sororan:

Onelatsuko arazoeri buruz ere bestetan itz egin digu Aita Santuak zilleizti alderdiaz mintzatuki, noski: amnestesia oso-osorak, kordegabetzera ta ezaguera galtzera darama. Analgesiak, mifiaren gutxitza dakar, soin-atak oie tako miñak ezpaltira garunetara iristen, burua ergi irauten, oso-osoki ezarren.

Baña jokabide auen zilletasuna erabakitzeke, araubide oen min-kentzea soilik gogotan edukitzea ez da aski; bear-bearrezko zaizu, jokabide oen egokitzeak errailetzako umearen biotzibizitzari ta amaren umearekiko biotzasunari ekarri lezaiokeen kaltea begi aurrean edukitzea. Ez baita legezko mingabetzea, umeari eta amaren umearekiko maitasunari kaltegarri ba zaio.

"Psiko-profilatiko"-jokabide au ezartzean ere aipaturiko bi arrisku ok uki genezazke:

a) Umeari gerta lezaiokeen arriskua.

"Mingabetzeko"

anestesia erabiltzea, sendagilleak lekuko, errailetako umeari, noiz geiago noiz gutxiago, kaltegarri zaio. Ez orrela, psiko-profilatiko araubidean, emakumearen natur-eskubideak oro erabiltzen baitira, berak "jokabide eginkorra lortu dezan, adimena, naimena, ta biotzasuna eragifinez, erditzek zorioneko amaia iritxi dezan naturak nai legez ta bere laguntzaz".

b) Amaren biotzitasuna.

Anestesia araubideak emakumeari kordegabetasuna dakarkio, erditza baitazko erabateko illuntasunean gertatzen dalarik. Olako amari umearekiko maitate-epeltasuna sortzen zaio omdorioz.

Ez orrela psiko-profilatiko araubideaz; aitzitik, "jokabide onen bidez, erditza-nekeak eginkorki jasatzeko gertu egiten bait da emakumea".

Anestesia araubidearen egokitzeak sortu ditzazken kalteak ikusi ondoren, Elizaren erabakia onela azaldu genezake: "Amarentzat edo semearentzat zenbat eta arrisku geiago edo gutxiago sortu anestesia araubideak, ainbat eta aurkakoago edo aldekoago zaio zilleiztiari".

Eta analgesia-araubidea erabat legezko gogartu ta eritzi oi da, umearen osasunari eta ematasunari ez batio kalterik sortzen.

Argi ta garbi datorkigu, bada, "psiko-profilatiko"-araubideaz azken-erabakia:



.. "Zilleizti alderditik begiratuki, dan bezela ikusiz  
 legeko da" -, ezpaitu amaren barnea, bere baita, naasten, illun  
 tzen; adimena, naimena ta biogtutasuna bere maillen gordetzen  
 baititu; naturaz aurkeko biderik ezpaitu erabiltzen; eta ama-  
 ren natura- eskubideak naturazko bidez erabilarazten baititu

Bereziartua' ter Iñaki

Arentzazu'ko teologilari



## GIZONA IZATEN - ABURUAREN

## OINARRI.

Zer dugu izaten-aburua? Urteak joan urteak etorri amaikatxo aburu eras dira jakintz-landa ugaritsu ontan. Azken aldi oetan batez ere. Erene orduko igartu dira. Or dabil tz jakin-gizonak bakoitzak bere aburua erdi naiesn edo. Aulkeri ta bidegabekeri bait da egun besteen eran jokatzea. Norberak bere bideari jarrai bear dio -diote- .Murgil bedi norbera bere baita barren-barrenean ta azter, azter ondoraño, bere izaera-muina idoro arte, ta erdi beza. Norberak gain du ta burutu bear du bere jomuga. Norgeretik landa bizi ta jokatu oi gera. Besteeri begira, besteengan murgildurik, besteengan deusezturik. Ortzen erail ta ito oi dugu gere norge retasun ori. Jomuga berezia badut, soilik joka nadin...

Onatx, XX'garren gizaldiko pentsalarien gogo-tan-kerak. Badu jokabide onak bere egi-muina ere. Giza ta luditar salmen ta izate oro aburu borobil, orokor batean ertsitu ta ito nai zutenen aurka jelkiak dituzu. Aburukaitzak dituzu zearo. Izaten-aburu itzkera ere begitan dute. Kamuseri edo ez takit norreri itandu omen zioten: "Zer da ordea izaten-aburu ori?" -"Izaten-aburua? -dio arriturik- Neu neror naiz ta!".

Naiz ta bere egi-muina eduki, alare, alderdikerez joka oi da. Alderdi bat, jokabide bat itzuri nai, ta beste alderdi ertze-ertzera jo digu. Besteengan ez itotzeagatik, bere baita-zuloan murgildu ta ito zaigu.

Norkerizko jokabide onak galerazotzen du, noski, aburu oso, egiña, borobilla, kristau-arnasezkoa, bete-bete bat eratzea. Bakoitza bere bidetik doa, urkolagunaren berririk ga be. Zuzen esan oi da egungo-philosophi-girotzaz : zenbat buru

Nolaz izaten-aburutzaz mintza gindezke, norbera bere burutiko ari bada? Aburukeriaren aurka jasoak baditugu? Izaten-aburuaren muiñ-muiñekoa duzu, beraz, norbera bere gain jokatzea, norbera bere nor-izanari ertsiki itsastea, baiño, ala ta guztiz ere, danen artean ustego bat eratzen dute. Ustego bat baiño, giro bat. Naiz ta bakoitza bereziki jokatu, denak giro berberak bilduak dabiltz, guztiak ats berbera dute arnas-iturri.

---

Uka ezin ditekena da XX'garren gizaldiko abururik garailena, izaten-aburua izan dala. Berak bildu ditu, Len-Guda-Ondotik batez ere, sartaldeko pentsakeraren ardura guztiak. Ta bekaitzez naiz begionez ikusi, jakintz-baratzean lenen-puntuan egon dan ustego batek, bere ondorenak utzi izan be-ar ditu, noski.

Nolako onderenak utzi dituan izaten-aburuak? Kalte garriak gelentsuak, baiño etenkituak ere bai. Ezta egia aburu onek utzi digun guztia zabarra danik.

Ustego onetxek biltzen ditu egungo pentsakeraren kutsurik berezi ta baliotsuenak. Pizkundeak (Renacimiento) sortu zigun "giza-joera", izaten-aburuak jakintz-bio#zean tinkotu du berauxe. Gizona duzu izaten-aburuan giltz-arazoa. Gizon bakoitza gañera, "zu ta ni". Gogo ta ezur-aragi uts berterik ez geranok.

Kierkegaard'engandik datorrenez, izaten-aburuak' aparteko arduraz artzen du gizona, ta filosofi ta jakin-gai oro giza-baita mugatara ertsitzen du. Arrazoi apur batekin abitu zaigu izaten-ustegoa giza-bide autatik. Idealismo ta Positivismo aburuen ondorenak ikertuz, baitipat. Izan ere gizonak len-leenik bere arazoak argitu bear ditu, bere izaten ta jomuga izadi barruan. Onetzez gañera, arazo guztiak gizonak berak sortzen ditu, ta bidegabekeri litzake bestelako arazoak argitzen leiatzea, arazo guzien iturri dan ori alde batera utzita. Ontan denak datozte. Ez dira era berdinean jokutzen, baiño auxen dute denak elburu: gizonaren illun-

di oiek argitu. Auxen duzu aburu onen onurarik baliotsuena: jakintz-arazo guziak gizonagan bildu, beste ainbeste aburu ta jokabidean aurka.

Auxen dut xede idazlantxo ontan: izaten-aburuaren giza-joera agertu; gizona aburu onen ernegille ta atsemaille azaldu. Aburu onen alderdi onuratsua nabarmendu.

Ostroak utzita goazen zuzen-zuzen zuztarrerera. Azter ditzagun, aburu loretsu onen aziak. Bi sustrai edo iturburu ditu aburu onek: filosofi ta kondaira.

#### A) Kierkegaard.--

Illunpetik jakintz-landara euskaldun ezagun batek pizturiko philosophilaria. Beste zenbait gizon argi ere badira ats-aundiko oso aburu ontan, S. Agustin, Paskal, Nietzsche, Malebranche, Rosmini, t. a., baiño Kierkegaard' gan datzate azi sakon ta bizigarrienak.

Kierkegaard' ren iritziz pekatuaren bidez irixten dugu geure eskubidetasuna. Ez gera gu aske oben egin arteño. Obendun izateak damaigu gogo-askatasuna. Obenaz geure buruak Jainkoaren aurka jasotzen ditugu, ta une ortaitxe konturatzen gera gure libertadeaz. "Obeneen datza -dio- giza-nortasunaren muiña"; norgeren obenaren ezaguerak nor izan berezi berezi bat damaigu; pekatuaz oartzten gera geure nor-izana. "Obenak nik soil-soilik dagizkit, ez beste inork. Nork ordez tu nazake neure obenean? Erljioan deus ere ez dikur gizar-teak edo giza-taldeak, gizon bakoitzak baizik. Jainkoari zeure berri besterik eztiogu emen bearko! Obenak, bada, nortasun eta erlijio-muiñak badazarkizki, nortasun-erlijio-oben auek min-muiñez lokarriturik daude".

Kierkegaard' k gizona "arazd" bezela aztertzen du, Idea bezela baiño, ta arazotasun ontan digar Trascendentzi-iturria.

Ona emen bere pentsakera laburkiro mamituta. Zer dala-ta Kierkegaard izaten-aburu deritzon ustego onen iturburutzat eritzi? Gizona, gizon-utsa, ezur-aragizko gizona soilik artzen dulako bere pentsakera, bere philosopha osoaren arazotzat. Gorabera ugari jasan bear izan zitun bere bizitza zear,

irarri arazi zion bere elerti guziari larri-kutsu, itomifi-ats barrenkor ura. Sakon miaturik zeduzkan giza-barna izkutuena, ta onetxek garaiarazi du bere elerti dena. Gizona, aragi-odolezko biotz bateri itsatsiriko gizona, larri-mifi, utsaldi, eztabai ta arazo z inguraturiko onako ezur-aragizko gizon au sukera zuan soilik berebururakizun gaitzat. Zakar ta larriki ezarri zitun onek, egun ainbeste buru nasturik darabilzkin bi arazo aukerak: gizona ta Jainkoa. Izaten ta tras cendentzi-arazoak. Ez ordea gizona, Gogo Orokorren (El Abso luto) unealdi edo azkorraldi bat bezela, mugabeko Gogo ortan deuseztuta; ezta Phisikak, Psikologiak ta bestelako jakin-saillak darabilten bezela ere, ezur-aragizko gizon kezkatu au baiarik. Ona izaten-aburuaren muina argi azaldu. Auxen duzu "Existencialisme" erdel-itzkera onek adierazten duna; auxen ere dagokion bereizgarririk bereziarena: "Gizonarekiko itzulea ra bizia". Gizona, urko-gizona au lenengo lerroan, ta guzien aurretik; ta gizonagan biotz-naimena, nai-iturri, sen edo ol de-menak batez ere. Ontan datza Kierkegaard' ren aintz osoa. Ona azitan beintzat, geroago lore mardul egitera datorrena.

### B) Aziaren ondorioak.-

Ernemifi geratu zan azia, eldu-eldu egifik dager orain. Beste joera bateko aburu bikaiñak sortu ziraden aldi artan ereta zeoro lurpera zuten azi ernemifi ura. Baño norbait aztarrika-aztarrika zebillela, oztopo egin zuan azi mardul onekin ta zeoro lilluraturik eguzkiaren galdatara atera zun. Unamuno bizkaitar euskalduna duzu azterlari au. Ordutik loretan dirau.

Igaro zale aburu oei ere beren aldia ta izaten aburuak betetzen ditu egun buru guziak. Zinema, antzerti, idazti ta jazkiei ere ezarri die kutsu berezi bat. Nolatan? Iritz okerrez derizkiotenez. Egia, gizonak duan aberaskirik bikiñena, eskubidetasuna du, bere jabe izatea, alegia; ta izaten-zaleak dituzu pitxi onen ajolatsuenak, baiño ez erri xak ak uler duenez. Ikus bezela Heideger' k giza-eskubidetasunari buruz oldozten duna, berari damaion ikur-zentzuna. (Vaelens, La Fil. de Martin Heideger).

Izaten-aburua ezta "Angst" edo "Nausèe" "Sorge" t. a. soilik. Argi adierazirik dizut izaten-aburuaren muina:

"gizonarekiko ikzulera bizia". Jakintz-arazo guziek onen menpeko biurtu, gizonaren inguruko. Jakintza osoa, philosophia batikbat "gizaratu". "Gizona izadi osoaren buru gerta dedin". Gizona jakintz-sailetan dagokion mailan jarri. Oraindañoko philosophia "Jainko-inguruko" (theozentrika) omen zan, ta aurrekoa "giza-inguruko" (antropozentrika), biurtu.

Enziklopedi-alditik XX'garren gizaldiko urratzeraño jakitunen ardura guziak izadiak zeramagkin; natur-jakintzak aurrerapen bikaina oso artu zuen; natur-izkutukiak aztertu, argitaratu, ona garai artako jakitunen jomuga. Gizona aztertzean efe, soñez aztertu. Jainkoa ta gizona urrun zebiltzen jakitun aien burubideetan.

Gaur alderantziz gerta oi da. Jainkoa ta giza-arazoak erneaturik, urduri darabilzki egungo biotz-gogoak. Eztu logikak len ainbeste ardurarik sortzen. Gizona gerta oi da arazo guzien sorburusnondik nator? noruntz noa? zein dut jomuga? nor ditut inguruko nere antzeko auek? zer dala-ta oek atsegifietan igari, ta besteok zoritxarrak jota? nolaz nabari tut nere baitan ase egin ditutan grifioak? nork irarriak ditut? Zertarako irarriak aseziñak badira, ta asetze berak egarri mingarriagoa pizten badit?...

Giza-baita barren-barrenendik kezkatu, urduri jasotzen diran galdera ondoriotsuak. Egungo jakin-gizon geien tsuenak, izatenzaleak batikbat ez dute philosophi-baratzean galdera zorrotz aien erantzunik besterik billatzen.

Damurik, baiño galdera barrenkor auek ixildueraztzen salatu diran izatenzale gelenak, ixilduarazi bearrean kezkatu ta larriago biurtu dituzte. Goi-argitik urrun jardun izan dira beren burubideetan, ta osertz argi guziak itxi ta ertsitu dizkio bizitz oni. Nondik natorren? "Ludi erdira jaurtia naiz". Noruntz noan? "Illobira zuzen-zuzen". "Il gerra uts-utsik; eriotzerako jaurtiak, ta geren baimenik gabe "jaurtiak". Ona bizitz tamalgarri onen jomuga: eriotza, ta eriotza ondoren "ezereza". Inguruko gizasemeok nortzuk ditutan? "Nerekin batera eriotz-amiltegira bultzatuak dijoazte nak. Bizitzak berak deus ere ez dikur, zentzurik ez du beregen, eriotzak damaio ikur osoa.

Gizona "ardura" (Sorea) utsa da. Eriotzetik isea

ibilli oi da, baiña izaten ditu, ordea, "argi une" batzu, bere derriorrezko etorkizun ikaragarria derakuskion argi-une igeskorra; une oietan sortzen zaio gizonari "larri miñ" (Angst) ori. Ala ere geienak beren jomugaren ezjakinean bizi oi dira, "itxurazko" bizikera bat daramatelarik (existenc. inautén tika), mundu ontako zeregifietan murgildurik, baitari itsatsirik daramaten azken ikaragarriaren berri jakiteke. Egungo gizarteko bizibidearen zarata-kutsu onen zer dala-ta, eriotz ikara ontan datza. Guziek eriotz-bidetik abiada zoroan amild duarren, itxuraz baiña, iges-naiean debiltzalako. (Ikus, Vaelens "Fiolos. de Mart. Heideg.)

Onelakoxeak dituzu izaten-zale guziak, buruenak - bakoitzak bere eram- galdera suei erantsitako erentzun bil durgarriak.

Methaphisika berak ere gizona du oinarri ta buru. Gizonetik asi, gizartera eltzeko (Heideger), edo gizaditik abitu gizonera iristeko asmoz (Jaspers). Dakusgunez eman zaio gizonari jakin-sailetan zegokion maila, naiz-ta oker tin kotu.

#### D) Jainko-arazoa.-

Esanik datza Jainko ta gizon-arazoak dirana egungo problema arduratsuenak. Jainkoa jakin tzetan dagokion mailati landa dago egun, egia. Badute ala ta guziz ere erligio-kutsu sakon bat gaurko philosophigai geienak. Aisa somatzen da egungo elerti ta philosophi-baratzetan goi-arazoetarako ardura berezi bat. Guziek Jainkoaren billa debiltzela dirudi, erne ta urdurik jardun ere! Nolaz au aditu egungo arazoan buru gizona dana aitortu dugunez geroztik?

Philosophilariak gizonaren arazotasuna (problemática) ezartzean, trazendentzi-arazoa dazarte berebat. Izaten arazoa jartzean, kontingenti-arazoa jarririk dago, ta onek trazendentzi-arazoa jartzen derrioz, ta azken au Theologi-arazoarekin berdintzen. Ezpaitu bein ere gizonak beregan, bere baitan arkituko bere izatenaren, bere zer-izanaren eroa, oinarria. Ta zuzen bada, beretik, bere baitatik-landa jo bear bere izatearen arrazoiaren billa ortan. Auxen duzu "baita landa" arazoa, edo trazendentzi-arazoa. Onela jokaturik Jainkoarekin topatu bear derrioz.

Era ontan zorrotzu egiten da gizonaren arazotasuna: "Zer da kur giza-izatenak? Bai ote gizonak ar-emanik Jainkoarekin? Zer dezake adimenak arazo auetan, ta zer naiak? t.a...."

Egia esan, asko ta asko dabilta egun Jainko billa, baiño ez ainbeste Jainkoaren billa, Orixe euskaldun ospetsuak dionez. Askok jo dute Jainkoagan, baiño ez benetako Jainkoagan, ordea, bere gisa asmatuiko jainko batean baizik.

Ondo gogoan jaso Jainko-arazoak giza-arazoa duena oiharrizat. Jainkoagana gizonaren bidez dihoaz geienak. Gizonak dazarzki problema bizienak, ta bere baitatik kanporantza egitean, Jainkoa aurkezten zaio, bere izate barru ontan sentitzen ditun eztabai urduritsu oiek argitzen.

Gizona ta Jainkoa, bada, baiño Jainkoa gizonagatik.

#### E) Luditar-Guda.-

Ludiak jasanak dituen jipoi zakarrenak, XX'garrengo gizaldi ontan jasanak ditu, Europa'k batez ere. Ondorioitsu izan zan benetan len-guda ura. Aldi berriak zetozen nunbait guda izugarri aren ondoren, guzien iritziz. Bide berriak, esertz berriak ageri zition Europa zaarri matxinada ikaragarri arek. Ernaberiturik jasoko ote zan itxas-odol artatik? Bere semeek ixuririko odoloz zirteturik zegrren oraindik Europa zaarra. Laister lertu ziran odolozko landare artatik lore gorriak, odol-usaidunak.

Politika-arazoetan naiz jakintzetan, gizarte-arazoetan, pilosofia-baratzan berebat, bide berriak somatzen ziran. Systema aunitz lurpera zitun guda arek, giza-arazoetatik landa zebiltzenak batez ere. Beste asko esertu ere bai.

Elburu lilluragarri baten ondorio zan guda ori azi-azian --Alemani aldetik batez ere-- , ta elburu onen idurikeria ain zakar ta nabarmen ikustean, guziek burumakur, murgil, goaiturik zetozen guda-lurresietatik. Ondo ikasiak inundi ere. Naska barrenkor onen ondore bereziarena duzu izaten-aburua. Ona Guda-Osteko pentsakeraren oiharriak: naska, itomina, eztabai sakonak. Gaiztatu ote Guda-Osteko filosofiarriak eroidaldi au? Baurik baiño, ats-andiko enak, ez.



Heidegger, Jaspers, Sartre, Marcel, aburu onen eust-arri sakonenak, guda-ixkanbilleetatik ateraberri ziran artean. Marcel ez beste guziek Goi-argitik landa jardun izan dira ta Kristiar-pentsakeraren aurkako gertatu. Beste izatenzale gelenak ere Kistar-ikaskintzatik landa jokatu dira.

Berdifinan joka ez badira ere, gogo-mufi berbera da gerte nabarmen-nabarmen: gizonari dagozkion arazoak, alegia. Ondoegei ikasiak zeuden, latzegi zigorturik, gizona, "eriotz-gai" gajo ori, jakintz-sailetan atal bat bezela mugatzeko. Izen ere Sociaca'k ain zuzen dionez: "Etziran gogamenak joka tu guda-lurresietan, ezur-aragizko gizasemeak baizik.". Eta ezur-aragizko gizon aiek, ezur-aragizko filosofi baten leia bizienaz irten ziran. Larriegi nabaitu zuten euren baitan eriotz-ikara guda-burrundan, gertuegi somatu eriotzaren arpegi zurbilla nolanaiko pentsagaietan jarduteko.

Gizona len-leenik, beste oro gizonaren inguruko. Arröta gutxi zemaien filosofiarari auei Psikologiak naiz Methaphisikak. "Ez dazarte jakintz-gaiok, nik, neuk bakar-bakarrik, emen nere baita barru illun ontan nabaitzen ditudan arazoak, urrundik ere!". Orregaitik dabilzkitzu beren iritziz gizona ertsitu egin oi duten itz-kera, itz-arau estu, gogor, orokor oelek ausi, ta berriak asmatzen, xeeagoak; geure barne-mufinetako arazoak zeatz-meatz adierazi leiaz.

Gizon bakoitza, nor berezi bat da, bere barne-giro berezia du, bere arazoak, ta nolaz mundu berezi auek besteenakin berdindu, zorikideztu, guziei dagozkien itzez agertu? Muga estuegiak dira mugarik bako gizon onentzat, Gizona ain muga estuetan ertsitu oi dutenak adi-zaleak dira gelenik, gizonaren alderdi bat besterik ez dazagutenak. Gizona "animal rationalis", ots, "adimendun" tzat daukate, "animal sentimental", ots, "nai-dun" tzat baiño. Eta Unamuno'k liokenez zer dela-ta gizona "animal risibilis" bezela azaldu ez? Txingarrak geometri-arazoak askatzen dituan ez dakigu, baiño parrerik ez dagiana ori bai, badakigu.

Onela damintzate guziek; kristau-bidetik ari diradenak ere. Ezpaitira Jainkoaganafio "ondorioka", "adi-arauz" eldu, biotzak eta barnearen utsak eta larrialdiak eraginda baiño.

Onatx laburkiro Guda -Osteko filosofiari irarri zioten oldozkun-tankera:gizona aztertu;gizon konkretu,zeatz ari ertsituz ordea.

Iritz-epaiz edo...

Nabari ager denez,izaten-aburua giza-alderditik besterik ezta aztertu.Au ere arinki.Ontaz guziok oneritzi dezakegu.Izan ere aburu sorberria -naiz ta egun iltzer arkitu- or darabilte ndlanai ta edonork.Dagoz-kion kutsu nabermenek ixillean,illunpetan dirautelarik. Onek begionez dakusalako,orrek,berriz,begi okerrez,geienak berri-zaletasunak eraginda azalez dazagutelako,bestetsuek, buruenik,norkeriz edo alderdikeriz epaitzen dutelako.Gure Orixe agurgarrientzat ere "ezur-zulubita" litzake,muingabe-koz...bizibide lirain bat.Besteentzat "elerti-utsa","larri-egarria",itomifi-gura bizia...antzegille bailira!

Dana dala,epailari itzaltsuenera ustez,aburu onek ere badu bere "animam veritatis",ots,bere "egi-muifia".Ara-zotasun berezi bat dakar,naiz-ta berria izan ez,jakintz-gi-roan lenen puntua jarri du arazo ori:gizona.

Eskolastika-arazokeri tentek ugari beinbetiko baz tertu dira,arlo garrantzitsuetera biurtzearren.Gizonak bil-du ditu berriro zorionez adi-jardun ta ardura guziak.

Labur esan.Naiz-ta izaten-aburuak okerretik joko tu izan,arazotasun berri bat sortu digu,ta naiz Eliza naiz Eskolastika ontara akula,giza-igurtzi orrez zirtatu.

Bastarrika tar Jakoba Iñaki.

Arantzazu ko teologilari.

## I Z A K E R A K

"Gaitzetsia maitatzera ez bestera daráman jakituria". Bossuet ospetsuaren esakera onekin eman zion asiera Touremonde jaunak izakereri buruz agurturiko bere lan bati. Eta nik nereari, beste jaun onen esakera onekin:

"Gaitzetsia jakiturian bere jakin-naia asetzea besterik billatzen ez duana, norbera obeagotu eta bere berdifikoei laguntzeko bide onena arkitzen saiatzen ez dana".

Eta orain, bi solku auek gogoan artuz lanari dakiot jakiturien ezkutukiak azaldu nairik, eta nere ta zuen obekuntzarako eman naiean.

Batzuen eta askoren barrena ez-baiña, guzienen ere kezkatu duan jarduna izaki-izakerean auxe. Beste jardun filosofikoen aldean, beraren berezitasun arrigarrien aztertzeke jakitun askori eragin eztiela uste baduzute ere, beti izan ditu aztertzaileen baten batzuk, eta baten batzuk baiño geiago ere bai. "Espasa Calpe" k argitaratutako Iztegian agertzen dan idazki baten egilleak dionez, jardun au antzifienetakoa da, eta jakintsu talde aundi bat, urteak zear, kezkatu xmar euki izan du. Eta erri xumean, berriz, nor ez du albokoaren izakera ezagutze-naia? Nor ezta kezkatzen, bere izakera ongi eta garbi ezagutzen ezuala-ta?...

Baiño izakerari buruz diardugula bi sentzu -beraiek ditu zabalensk- oso gogoan izan bear ditugu: fisiologian eta batez ere psikologian artzen dituanak.

Asko ezpadare, sentzu fisiologiku au psikologiku aren idurikoa da; eta onela, jakintsuek sentzu bi auek errez berezitatzen badituzte ere, erri xumean bein baiño geiagotan biak batuak dakuskigu. Fisiologikoak gorputzaren itxura da maigu; psikologikoak, aldiz, gogo eta adimena ausnartzen ditu.

Phisiologian izakera asko arkitu genezazke, eta idoro ere oi dira, baiño berezitasun ezer aundirik gabe. Garrantzitsuenak iru eman oi dra; ala ta guztiz, nik beste bate ere erantsiko dizutet, eta bostgarren bat ere bai aipaturen.

Izakera phisiologikua zer dan galdetuko bazenida teona erantzuna: gorputzeko systema baten nausigos.

Izakera itz onek antziñan humoreen alkar-berdintzea adierazten zuan. Gorputzaren osasuna alkar-berdintzea ontatik zetorren; gaitzak, ostea, alkar ongi ez berdintzetik sortu oi ziran. Gorputzean humore bero ta legorrak, ots, sabelurak nausitzen zuanean, izakera sabelurtsua edo esarrekorra sortu oi zan; humore bero eta bustitik -sabelur beltzetik- izakera sabelur-beltzatsu edo uzkurra; humore ots ta legorrak -odolak- izakera odoltsua ematen zuen; humore otz ta bustiak -birikendiak- izakera nagitsua. Eta izakera bakoitz auen nausigok bere tasunek eman oi zizkion gorputzeri.

Hipokrates'engan du asiera ikaskai onek; atzalketa berriz, Galeno'ngan.

Geroago, jakitun bakoitzak ematen zien bere erako adierazpenez, beste izakera berri batzuk sortu ziran. Onela: izakera urduri, edo odolbizikoa, eta indartsua. Gero, izakera bakoitz auen besteen kutsurik ez ote zute zalantzen jarri zan, eta biko batzuk asmatu zituzten: linfetiku-urduria, sabelurtsu-urduria odoltsua. Halle'k, berriz, beste batzuk eman go zizkigun; gorputz guziraiko batzuk, bestiek atal batzuetara ko; eta gizonak berez iritxi lezazken batzuk ere artzen zitun; aurrenengoak, lenago esan ditugunak ziran; bigarrenengoak, aldiz, papar, buru, eta este aundiko izakerak. Rostan, lengoari jarraituki eta aparatatu organiku auek: egoskaillu, jiraille, sortarazle ta buru-namia (encéfalo) aztertuz, beste berri batzen asmakri izan genduan. Beste batzuk Luton'en erara gure bizitzako aro guziet izakera bakoitza jarri zieten: izakera osaille, aitazko, amazko, ta gizaeza; eta azkerez, Ulhe ta Wagner gidari, beste batzuek izakera orok ezeztu zituzten. Ala ta guztiz gure egunetara iritxi zaizkigu auek: izakera nagitsu, odoltsu, eta urduria.

Ona bakoitz auen berezitasunak:

### Izakera nagitsu edo linfatikua.--

Linfaren nausigoak dakar izakera eu. Lodikoia da; indar-eza, errex eldu oi zaio; odolaren jira-birak motelak ditu; aragi guriak; narru mee ta zuaria; sudurra luze-zabala; maizenik lepo motza; margo eta dizdiragabe arpegia; ondo bete a; begi-beltz-txuri edo muskerrak; illea leuna, gorri-zuri edo ubel-argizkoa; bizarririk eztu, eta duanean, margo ezer askorik gabe; mugitarazleak (músculos) azitzeke edo gutxi azita ditu; mugitze motelekin dakusgu; eta batzutan baldarrakin ere bai; gorputz lodi ta astuna darama; onek damaio berezkoa dun tankera nagitsua. Odol-zaiñak, elkartuz meatzen zaizkion garaian, linfarenak, loditu egiten zaizkio. Humorozkoi ta gaitzepelkoi a da. Izakera eu aur-emakumeetan da toki bero-bekoetan dagan

### Izakera odoltsua.--

Berezitasun aundienak auek ditu: berezkoa du osasuna ta indarra; mugitarazle aziak dauzka; zain lodiak; odola asko ta garbia; birika aundiak, eta onegaitik aize-artze luzea; ezpañak gorri-lodiak; azala polit ta gorri dauka, batzutan baita zuri ere; begiratze garbia; begiak azal-ertzean maizenez; urdifiak ditu beraiak; illea ugari, askotan 1 leun da zuri-gorria; lepo motz-lodi gienetan; burua laukitua; paparra ere bai, eta gañera azita; sudurra gogor ta ondo irikia. Osasunari eusten dion artean lo ona du, eta txit maittea. Bere biotz aundi ta indartsuari odola gañezka dario gorputz guziraiko. Indar gutxi galdu oi du, eta onegatik bere odolaren gorritasun bizia, azalaren gardentasuna, ta arpegiaren arrosazko margoa. Odola askotan pillatzen zaio eta kanpora ere dario. Toki otz eta mendietako gizon-emakumeetan eta zar-gazteetan, denetan dakusgu.

### Izakera urduria.--

Systema urduriaren bizkortasun da minberatsuna berezitzen du batez ere. Gorputz txikia du; mugitze asko ta askarrak ditu gorputz eta arpegiaren; bere zai intxuri ta migitarazle askok gutxi azita dauzka; urduria egikor baiño minberakorrigo dala ontan dakus J. Guilberték. Odol gutxi du, edo ezta beintzat azalpean jira-biratzen; ontatik bere arpegiaren margoeza, eta begi ta illearen argia.

Odoltsuaren aldean lo arifia du eta oso esnakorra da; indafa ere gutxi berritzen dio. Indarrrik ez du, eta berez ezta egin-korra, baiño esnarazi ezkeru, sutsu ta gogor dakio lanari, azkar nekatzen denez, asti gutxiako bada ere. Arpegi borobilla du. Bere gorputz luze ta meea gardentsu dager.

Zeindusk daude gure egunetako gorputz-azterlari gelentsuenak onartzen dituzten iru izakerak. Baiño lanaren biotzera sartu aurretik, beste bat ere akarri nai dut.

### Izakera sabalurtsu edo asarrekorra.--

Azal ubela du, latza gafierra; mugitze zakarrak; gorputz mee ta arifia; begi dizdiratsu-ausertiak eta, illaren antz, beltz edo ubelak, eta oso sartuak gafierra; odolaren jira birak motelak; odola oso asko ta ona; zain lodi bidez gorputza jiratzen dio onek, eta mugitarazle indartsu batzuek sazeartu ondoren, organuen erretzeaz beltzatuta doa biotzera. Erretze onen ondakiñak azalean ezartzen zaizkio eta onegatik arpegiaren sabelur-margoa. Arpegi-atalak oso atereak ditu; begiratze biotzallea; sudurra luze ta gogorra, eta zuloak ondo irikiak; eppain meesak; papar luze ta txkia; ille gogorra; zaiñak agirian dauzka. Odoltsuaren aldean motza da; meea gafierra, indar asko galtzen baitu.

Eta guzi auek osatzeko, izakera uzkurra. Sabelur beltzaren nausi goak berezitzen du.

Orain arte izakera gorputzki aztertu dugu. Emen, berriz, gorputzeko organuen batasun ta egikerak ezezik, gogo edo adimenarenak -eta auek batez ere- ezagutu nai ditugu.

Izakera psikologikuaren ikas-irakasketa oso antzifia dugu. Bere aemana sundia da oso, eta ezin uste aiañ gizadia kezkatu duala ezin ukatu.

Onela, sendagilleek osaki egoki bat ematearren berren gaixoen izakeraren ezagutzean arduratu oi izan dira. Zileiztilariek izakera bakoitzen ezagupen osoa eskatzen die gogo-azterlarieri. Eta arrazoi az, beraien izakera ontako edo alakoak egifiko guztien astuntasunari buruz ongi iritzi al

izan dezaten. Ume-egitzalleek ere au berbera eskatzen diete, gizarteko orok ongi ezi ta zuzendu al izan ditzaten. Gogo-ikertzalle berberak gizon-mota orok eta bearieten izkutatu riko indarrak ezagutu nai ezkeroz, nai ta naiez izakera guzian ikasketa oso eta sakon bat bear dute. Eta azkenez, agin tzallek ere, bere legeak ze tankeran artuak izango diran eta nola adierazi bear dituzten jakiteko, bere meneko guziena e ezpada ere, gelenen izakera ezagutu bearra dute.

Eta garaia dut oraintxe izakera psikologikuaren sentetsua emateko, baiñan aurretik izakerak, eta berekin oso al kartusk dauden berezkotasan da karaktereak adierazten digu tena esan nai dizutet.

Au dugu izaheratzat: bakoitzaren izate-era bere izatean, ikusia; berezkotasanatzet, berriz: bakoitzaren egite-era, izate-erari moladuta; beste erara esateko: bakoitzaren izate-era egifietan ikusia; eta karakteretzat: lengoa bezela, bakoitzaren izate-era bere egifietan ikusia, baiño bere egiketean naimenak ezarri al dezakion aldakuntzekin.

Izakerak muetatzeke bi bide ditugu. Aurrenengoak, gorputza osatzen duten elementu anatomiku-phisiologikuetan du asiera; bakoitz auen nausigoak muetatuko lituke izakerak. Bigarrenkoa artzen dutenek, batez ere organismuaren ostetasun edo reazio psikikuek aztertzen dituzte. Ostetasun auek muetatuko lituke izakerak. Aurrenengo bidea antziñakoek artu zuten; bigarrenkoa, berriz, gaur egunekoa da.

Hipokrates'en iraskintzari jarraituki Galeno'k muetatuko zitun lanengoz izakerak. Berak zionez, lau izakerak lau humore -odola, sabulurra, sabelur beltza ta pituita- nagusiengandik zetozen.

Muetaketa onek bere sustrai edo aztarren teoriku ta phisiologikuek antziñako irakaskintz kosmologikuan ditu; orduan uste zutenez, ur, aize, lur ta suak osatzen zituzten izan orok; auek bi zergaiti ez berdifietan zuten etorrera. Gorputzeri lau elementuak eragiten zielako, lau humore ziran, eta auetako lau ziralako, lau izakera.

Muetaketa au lenago ikusi dugu; utz dezagun, bada, emen.

Gaur eguneko muetaketak.

Luzegi ez izagearren, muetaketa eta onenen egilleak aipatu besterik ez tut egifian; azkenean, onena edo entzunena, HEYMANS jaunarena, alegia, akarriko dizutet. (Ume-eziketarako geien bear ko duguna dalako ezbaña, jakiteak ondoan ukitzen ditualako artu dut azkenengo onena. Idazti ontan izakerak jakituriei dagokionez aztertzen ditut.)


Ona emen muetaketa auen egille ospetsuenak: Dorsch, Kant, Herbart bi muetaketerekin, Hellwig, Ebbinghaus, Carus, Wund, Kreibig, Bibery, Bahnsen, Meumann, Külpe, Klages, Kretschmer, Pende, Sigaud, Fouillée, eta azkenez Goi-Ameriketako Sheldon jauna. Gure egunetako azkenengo onen irakaskintza P. Alejandro Roldan'ek, S=J=, argi azaldu du bere idazti batean; baten batek ikusmin biziren bat badu, onako ontan idoro lezake: "Pensamiento" aldizkaria, 32 n. 8v., 1952'go Urrilla'tik Lotazillara, 435-464 orrialdera. Au dugu jakiturietan azkenengo muetaketa; orregaitik jarraitzalle gutxi ditu oraindiko, eta ezta oso ezaguna; baña, oso ona izan bear du, diotenez, eta nere iritziz ere bai.

Besterik gabe ona Heymans jaunaren muetaketa; onena edo bide da, bere sustraiak jakintz-arauz jarriak baititu. Eta bere sustraiak jakintz-arauz jarriak dituala diot, Heymans jaunak billaketa batzuen ondoreak eta gizon ospetsueri buruzko liburu batzuek aztertu baitzitun batez ere; eta bere surreko geienak bezela etzuan artu izan gogoa izakeraen ezberdintasunaren guzienga-nakiko itxura bakarrik. Onela eta geroagoko obekuntzeekin ondore aundi xamarak eta geroago eta zeaztasun aundiagoa lortzea al izan zuen.

Aurrenengo z, sendagille askoeri bere iritiza eskatu zien. Beraiek arduraki azterturiko gizon batzuetan 90 esbakoiztasun ezberdina nola arkitzen ziran erantzun bear zitoten. Erantzun auekin 2.500 gizon itxuratu al izan zituan. Gero berberak llo gizoneri buruzko liburuak aztertu zituan; aien artean olerkari, elerkari, eta filosofoak ere bazeuden, eta lapur eta gaiztagifia ere bai; liburu auek lenagoko 90 bakoiztasunekin elkartu zituan gero. Eta iru bakoiztasun ofiziarrik, euren artean, eta kontrakoekin, aldatuaz zortzi izakera eman zizkigun.



Billaketan jarri zizkien galderak batzuten erantzunera zijoazen zuzenik; bestetan, berriz, ez. Onela, unkikortasunari buruz su galdetzen zien: "aztertu duzutena unkikorra al da, ala ez?" Egimenari buruz, aldiz, beste su: "Leialtsu izaten al da lanean? Lanaldietan jardunean arkitzen al zaio? A-sieran arduratsu al da? Jarraipenean ere bai?". Irugarren bakoitzasuna aztertzeko galdera suak egiten zizkien: "Azkar pozten adiskide-arazten al zaio? Lagunkoitasunean aldakorra al da? Biotz-unkitze ta alaitasunaren billa ibiltzen al da, ala ez? Itz-jario al da? Aldakorra? Bizibide eta ikaslan-motetan aldatuerrexa? Sarritan asmo sudizko gizona al da, asmo oriek burutzen ez dituala? Bere egimenetan ondore urrenekoak eragipenik ba al dute? Lanari askotan al dakio bere gogai sustraitikoen kontra, ala ez?".



Billaketan agerturiko tasun sustraiko bakoitzaren onartze edo irstea erantzunen alde nagusiari zerion. Iru bakoitzasun sustraitiko ta bere kontrakoen-ots, unkikorra-egunkikorra, eginkorra-ezeginkorra, al dakorra-ezal dakorra, —al dazetik zortzi izakera suak osatu zituan. Doixtar gogo-azterlari Fröbes, SJ, jaun ospetsuaren "Psikologia experimental" liburutik atera ditut; nere lanaren atzalkera suzian bera

izan dut gidari, baño batez ere dijoazkizuten gogai auetan.

Egifiiko iduribide orten begiraldi batean ezagutu dezazkezute edonor izakeraren bakoiztasunak. Goiko zatian, al de eginkorra duzute; eskuiko zatian, aldiz, alde unkikorra Erdiko saillean izakera aldatuerrexak; kanpokoak, berriz, al- dakaitzak.

Edonor izakerak ze bakoiztasun dituan idazteko au jarri bear besterik eztugu: I z a k e r a u r d u r i a = U - ezEA. Eta itz orotan esateko: I z a k e r a u r d u r i a : U - unkikorra, ezE-ginkorra, A-ldakorra.

#### HEYMANS JAUNAREN IZAKERAEN GOGO-BAKOIZTASUNAK.

O d o l t s u a k : ezUEA.

Bere egimenak oarkuntzaz osatu oi ditute; otz ta objetiboak dira; alaiak oso; adimenaren aldean bizkorra dute irudimena; lagun atsegingarriak dira; mugikorrak; ondo kamar dakie lanari, baño eztira beraletan murgiluzen eta iraupen gutxi dute. Errez adiskide-arazi oi zaie; praktiku ta oarkorr dira; eztira maitezaleak, baño bai berekoiak; askatasuna atse gin dute; gelenetan eztura leialak; erligioan indiferenteak; jolasketa-zaleak; adore kementsua dute; bere egifik askotan b beren teorien kontra daude. Oberen berezituriko odoltsuek beste bakoiztasun suek ere badituzte; kemena eguro galdu oi dute; arro ta azalekoak dira; eramenik eztute eta eztira ezer garaizaleak; janariak txit atsegingarri zaizkie; itzlari ta ereslarietarako oso-oso gaiak dira; buru arifik; erabakiak ar tzeke indarrik eztute. Gizon ospetsuen artean Fr. Bacon ta Lessing auen antzekoak arkitu zitun.

A s a r r e k o r r a k : UEA.

Setatsu, itxumustu ta

jasankorrezak dira; alai ta irrikorrak; errez adiskide-arazi oi zaie; araturiko lanaren zalekorrak dira, eta oenegimenez berten murgikdu oi dira; ulermenean erreztasuna dute; praktik ta adikorrak dira; naimen erabakiz iriztera jotzen dute, eta iritzi au azalekoa da. Janariak atsegin dituzte. Lagun eta sen diaren maitekorrak dira oso; jolas-zaleak; mendian bizitzea atsegin zaie; baño ez gela aundiko batzarretan egotea. Bere

izate-eran lotsagabe ta euren buruaz pozik agiri oi zaizki gu. Iraunkor eta adonestuak dira; egikerak ezituzte gogaien kontra. Ondoreak ezagutzeko onak dira, eta azterketarako eta gizonen ezagurako badute gaitasuna; batez ere aldatu-errexak dira. Edertidi, matematika eta gogalketarako ezitute gaitasun ezer aundirik; liburuak etsai dituzte, baiño billatzen dute e-gia. Itzlarri oso onak dira. Auetakoak dira zenbatzalle, senda gille, ta ekertidunak; eta badituzte bere zaindariak: Danton, Dickens, Mirabeau, ta Scott.

#### N a g i t s u a k : ezUEza.

Eztira ez odol-gaitz ta ez emarazkorrak; lanaldie-tan badute irautea; bere egimenetan oarkuntza, irautea ta era mena agertzen dira; bere erabakietan era-batekoak dira, eta euren egikerak eztaude aien kontra. Jasankor, lokabe, ekonomik ku, garaizale ta izen onekoak dira; bere egikeratan ezitute e eder emateko zalekeririk; gazi auetan oso nabarmenduak dau-de. Ezitute maitezalekeri ezer aundirik, ez ta arro ta aundi naikeririk; aldiz, errukidun ta onutsuak dira. Doi-doi agertu oi zaizkie grifia nausigo dutenak; eztira izadiaren edertasun ta eresertiaz zaletuak; aldiz, bere zaletasuna adimeneko gauz, ikasmen, gogalketa ta matematikara zuzendu oi dute. Ez-tute errez ulertzen, baiño auek idazti edo esana ulerterre-za da oso; beraienak dira gogo-ikertzaille oberenak; batez ere askotan ondoreak ezagutzeko gaiak dira; oso oarkorrak. Irudi men-gauzetan motx dira. Auen artean aztertze jakitedun ta idalzlari asko dira; olerkariak, aldiz, ozta-ozta baten bat. Jakitedun ok dituzte zaindaritzat: Hume, Francklin, Kant, Locke, Mill, ta Taine.

#### Biotzaleak: UEza.

Egimenean da dute asarrekorren antza, baiño aldaka itzak diranez, aiek baiño setatsuagoak dira eta lanean mur-gillagoak izaten dira. Leiatu ta iraute aundikoak, ulermen errezko ta praktikuak dira; azterketarako gaitasuna badute, eta baita askatasunerako ere. Odol-gaitz dira, ezer ez arreak; mendian bizitzen atsegin zaie, eta askotan kulturaren ardu-ragtik nazka azaldu oi dute. Gauzak ikuste-eran iritiziale ta idurikor agertzen zaizkigu. Seriotasun ta zindotasun aun

dikoak dira; gizonaren bizitza dagokion mallan jartzen bada-  
 kite. Janarien atsegin, jolasketa eta eresertiagatik etzale  
 ezer. Menpekoekin errukiñun ta onutsuak dira; gutxi aurrera-  
 koiak, ekonomikuak, tolesgabeak, izen onekoak, eta garaizaleak;  
 gure konfiantza eman genezalekegu; bat-bateko arriskueta a-  
 dorerik ez tute. Biotzale oso unkikorrak arkitzen baditugu, i-  
 txumustukoak, jasanko errezak, itxegifi-eziñekoak, aldakoiak, bu-  
 rutsu edo asmariak dira, eta kako-makoetaz zaletuak deude; ja-  
 kite, alerti ta edestietarako gaitasuna badute; gogo-ausnartz-  
 tzalle onak dira; darabilten gauzetan garbitasuna ikusi oi-  
 nai izaten dute, eta gauzak oro dagokien mallatan nai dituzt-  
 te. Egitasuna maite dute, eta aburu berrientzat ez tute kemenik.  
 Nazioko gauzetan debiltzen gizonetan, naturalista eta oler-  
 karietan, olerkariphilosophoetan batez ere arkitu zitun aue-  
 koak; gizon ospetsuetan: Miguel Angel, Pascal, Pasteur, ta Nie-  
 tzsche.

#### U R D U R I A K : UezEA.

Itxumustu ta ernarazko-  
 rrak dira; iraute gutxi dute; errez oztu oi zale adorea; bere  
 asmoetan aldatuerrexak dira; urdurietan gogamendu ta egime-  
 naren burruka malla gorenera igo oi da; aztertetzalle ta gogo-  
 ausnartzalle txarrak dira; azalez iritzi oi dute, eta eztira  
 ezer praktikuak; bafio eresertirako oso argitsu ta gaiak; ja-  
 narien atseginkeri, alperkeri, berekoikeri, arrokeri ta emaitz-  
 kerira itxuliak dira; eztira zindoak, ez eta ezkatukiak bere-  
 ieri agertzeko gaiak; erlijioiko gauzetarako ez tute zaleta-  
 sunik; eztira oarkorrek, eta ezta ezer garaitzalleak ere;  
 maizenetan ernarazpen sendo, bat-bateko ta mota askokoak  
 bear ditute. Auen artean olerkari asko dira, aldiz, jakitun  
 gutxi. Azterturiko gizon ospetsuetan Byron ta Fritz Reuter  
 auen kidekoak idoro zitun.

#### I t x u r a b a k o a k : ezUezEA.

Adimenaren gaitasun aldetik aulak dira, azalekoak,  
 teoriku utsak, ezer ez gogo-ausnartzalleak, aztertetzalle txar-  
 rrek ta irakurpenaren adiskideak. Lizunkoi eta berekoiak ere  
 dira, alperkeri ta janarizaleak; azpikerilari, gezurti, kaldar,  
 gutxi garaizale, arro ta ondatzalleak; ereserti ta edestirako  
 gaiak oso. Bere burua dagon mallan bafio askoz gorago dala

uste dute;aberri ta erlijio-maitasunbakoak dira.Guzi onten urdurien kidekoak dira.Onako auek aiangandik berezitzen dituzte:eztute unkikortasunik,otz ta objetivistak dira,jasankorrrak,ezer ez aserretiak,aldakaitzak eta lasaiak;gelegiztutzea eztute atsegif.Urduriak baiño adimenekoagoak dira,biotzkada sakonik ezpaitute;baiño ala ere erdikoan azpitik gelditzen dira.Asmo txikarrak dituzte;besteen aburuak onarttzeko indiferenteak dira;bakarkoiak;errez menperatzen dira.

#### M i n b e r a k o r r a k : UezEeza.

Urdurien bakoiztasun anitz badituzte auek ere,baiño euren aldakaitzetasunak aiangandik berezitzen dituzte;adimenak ez-baiño,menberamenak deragie.Matematika ta izkuntzen ikasmenerako gaitasun ona dute.Odolgaitz,ernarazkor,ta itxu mustuak dira,baiño lengoak baiño gutxigo;itxiak,uzkartasunza leak oso eta,aldiz,alaitasun zaleak ez;nekez adiskide-arazi oi zaie.Serio ta zindoak,biotz-bera ta izen onekoak dira;erlijio ta politikan ertzetara jo oi dute;eztira lizunkeri ta janarien atseginketara itzuliak,ezta arrokerira ere.Ekonomikuak dira,eta baita laguntzakor eta norberaren azterketa itzuliak ere.Besteeri buruz eztira aztertzele ta psikologuak;praktikuak ere ez.Asmo txikarrak dituzte eta aldakaitzak dira.Auetako geienak elerti ta olertian arkitu dira,eta gizon ospetsuetan Robespierre,eta Rousseau jaunak.

#### S O R A I O A K : esUezEeza.

Lengoekin badute antza.Jasankoerrezak dira;oarkuntzaz osatu oi dituzte eren egimenak;etzale errez adiskide-arazten;uskur eta bere aburuetan setatsuak dira kemen gutxi koak eta ezbaiezkoak.Eztira praktikuak,ez eta oarkorrrak ere;trebetasun,irudimen eta oroimenik eztute eze asko.Berokokeri eta lizunkoikeri ezer aundirik eztute;izen onekok dira eta gure konfiantza eman dezalekegu;ekonomiku,itxiak,eta gutxi garaizaleak dira;kemena askar galdu oindute.Minberakorren kontra adikorrrak,otzak,onutsuak,infiferenteak dira;azterketa edo berrietaz,erlijio eta politikaz,eztira asko zaletu oi.Askotan bakarkoiak dira;menpekoekin eztute erukirik eta auen aburuetzaz ajolik ere ez;askotan zeken edo diru zaleak dira,eta ipurterreak.

"Norbait".

## GURE GAZTEAK

ETA

## GAURKO KULTURA

Greziarrak, eromataren oinpean azkatsuna, aberastasu  
nak eta beren kultura galtzen ari zirela igarri zutenean, A-  
tenasko agintari ta jakitun guziak batzarrean bildu ziran.  
Batzar ontara asmo bat zeramaten: galtzen zijoan erriari bi  
de berriak eman! Bakoitzak bere iritzia esan zun, baina an en  
tzun ziran erabeki guziak oñarri gabekoak ziran, ordurarte  
erabillitakoak bezala. Orduan filosofin maixu zan batzarki-  
de batek jantzipetik sagar ustel bat atara ta batzar-gela  
erdira botza zun. Sagar ustela puskatu zan txipristiñez baz  
terrak loiturik. Ango guziak arritu ziran eta filosofo ari  
gauza ura zergatikan egin zuen galdetu zioten. "Batzarrean  
jarri dezuten itaunari erantzuteko -esan zun-, gure erria  
bide onera nola ekarri diteken jakin nai dezute. Bidea nik  
erakutsi dizutet. Sagar ustelak ezta ezertxo ere balio, baina  
bafuko aziak oraindik zintzoak dira ta azi oietatik landare  
berriak etorri litezke. Sagr ustela Grezia'ko erria da, bafu-  
ko aziak gure gazteak, azietatik etorri litezken landare be-  
fiak, gure efi berria izan bear du... Lan egin dezegun len-  
baitien gure gazteak zintzo ta jakiturik azitzeko, gazteak a-  
dira gure efiaren itxaropena ta etorkizuna, eurak dira gure  
biarko efi".

Gertakizun au ezta kit egizkoa edo asmatutakoa dan,  
bafian erakutsi eundia ematen digun gertakizuna da.

Inortxo ere ez dabil geur pozik. Zafak lengo gau-  
zen oroimena maite dute, lengo urteak obe izan dirala esaten  
digute, gaur gauza guziak galtzen ari dirala: kristautasuna, a-  
berastasanak, oiturak. Gazteak, berriz, bide berriak artu nai

dituzte ta zafak ematen dieten neufipean ez dute bizi nai. Ofela filosofi-gaietan, edertidi-gaietan, politika-gaietan, ekonomi-gaietan eta baita ere erlegioaren azal-gaietan. Gau za aukeragirik ikusten dira ta ifork ere ezin ditzake ukatu.

Prantzia'ko matxinadatik onera, munduak, Jesukristo'ren jaiotzatik Napoleon'en urteetara baño aldeakuntza aundi agoak izan ditu. Len eun urtean gertatzen ziran gauzak, orain amar urte bañuan edo edo denbora laburagoan gertatzen dira. Gure egunetan, edestiari jafaiki, munduaren garaiek neurtzen dituztenak, garai befi bat eldu zaigula esaten dute. Garai befi onek nolako izena du? Ela-garai esaten diote batzuk, baña ba' liteke oraindik urte askotan ugutz gabe irautea ain ustegabeen etorri zaigun garai au.

Gora-bera auetan nola geratu dira kristautasuna ta Kristo'ren Eleiza? Gaurko kultura aztertu nai ba' degu, nolako usala emango ote-digu? Eta batez ere gure gazteei gaur ematen diegun irakatsia gaurkoa ote da?

Ba-dakigu Kristoren Eleiza ta erlijioa ez dirala mundu ontakoak, ezilkoñak dirala ta zalapartada guzien artean ere beren bidetik ez dirala ifoiz irtengo. Baña gaur kultura-gaietan eta gazteen ezieran ifoiz ez bezelako afiskuak arkitzen ditugu. Afisku auker gure efiaren lepotik urintze a nai ba' degu, guk apaizok, gure kristau-efiaren erabakiak gure eskuetan ditugunok, lendabizi egin bear deguna, gazteen ezikera da, batez ere ikastola nagusietan dabilizan gazteena. Gazte auker dira gure efiaren itzaropena ta etorkizuna.

Azkenengo irureun urteetan bufuka aundia izan da erlijioko gauza ta kultura gauzetan. Erdiko garaian olako bufukarik etzan izan. Eleiza zan orduan goiko gauzen erakusle ta lufeko gauzetan maixu. Orduan kristau efiaren kristau etzan gizonik ezin ziteken bizi eta kristau etzan norbait arkitzen ba' zuten kristau batzafeti et jartzen zuten. Ikastola guzietan Teologi irakasten zan. Baña amabostgarren eta ufengo gizaldian lendabizi ta, batez ere, Kartesio, Kant, eta Kierkegaard'en urteetan kristautasuna ta kultura banatzen ari ziran eta gaur oso banatuak arkitzen dira.

Baſian aurrez gauza bat esango det. Kristautasuna ta kultura eztira gauza bat. Kristaubatzafaren edestia ta kultura-edestia eztira berdiñak. Bata Jainkoaren gauzen eta salbazio edestia da; bestea, gizonen gauzen eta lürreko edestia. "kultura" itza era askotara artzen dute, baña emen itz onekin, efi bakoitzak bere barruan gordetzen dun aberastasunik aundiena esan nai degu. Kristo baño lenago kultura bazan; kristaubatzafetik at ere bizi liteke; kristaubatzafaren aurka ere ifioiz lan egingo du. Salbazio edestia beñiz Jainak neurtzen du. Gizona kultura batek ez du salbatuko, Jainkoak baizik.

Guk zer egin bear degu? Kultura guzia baztertu? Ez, ori alperkeria izango litzake eta gañera Jaunaren naiak ontzat ez artzea. Jauna gizon egin zanetik, salbazio-edestia garai guzietan eta kultura askotan gizatu da. Gaur, orduan, kristautasunak gure garai ontan, gure kultura beñi ontan gizatu beaſa du. Ez nastu beaſa. Orainarte Eleizak egin duana eu da: lendabizi Palestina'ko alderdietan eta gero Grezia'n eta Eroma'n eta gero Doixtar lufetan bere zerutar erakutsiak sartu ta efi aien kulturak, al zitun neurriak, kristautu baña kultura aiekin nastu gabe. Eta aietako kulturen bat il ba'zan kultura beñiarekin bizitzeko bildurik etzun izen. Au izan bear du gaurko gure lana. Lan berezia ta gaur egiten ezpa' degu biar ezin liteken lana...

Ezin genitzake kultura-gaiak alde batera utzi, baña beti kultura-gaiak beren neurrian erabaki bear dira. Erlijioak kultura beñiztu ta jaso lezake, baña ez du ifioiz ere bere itzaropena kultura-gaietan jaſa bear. Lan miragafi ontan begien aſean izan bear ditugu Paul Deunaren aiek: "inſtaurare omnia in Christo" eta balta ere beste Bonabentura Deunaren itz aiek, gizona da "consummatio creationis" baña Jesukristo "consummatio humanitatis".

Gaurko gazteak gauza beñi askoren aſean arkitzen dira. Gauza beñi aukerabaki bat nai dute saſi. Erabaki ori artzeko gazte askok ez dute indaſik. Ikusi dituzte nola politika-gaietan, ekonomi-gaietan, kultura-gaietan gaurarteraño



bear-beafezkotzat genitun gauza asko erori dirala. Or jafi zuten sinismen ori itzali da. Eta gure eruz, gauza auek Elei zarekin batera erai nastuta ikusi ba' zituden, gazte oiek Eleizan jafi zuten sinismena ere galduko dute. Oregati gure gazteei bear dan neurian itz egin bear zale. Santu bati, angoa edo emengoa dalako ta ez deuna dalako goraltze aundiak egiten dizkiotenean, bildur izaten naiz. Bildurta nintzen len go egunean ere Eukaristi-Batzar baten itz auek entzutean:

"Kristauok, onak eta zintzoak bazerate gure eriko agintarien txaloak irabaziko dituzute". Bildur izan nun len go astean Eleiza baten Luis 'tafei itz egiten zegon bati: "zuek gazteok, jarduz beti euskeraz, euskera bait degu gure erlijioa gordeko diana" entzutean.

Orain galdera bat: egia al da ori? Egia gure erlijioak -erlijio denez- euskeraren beara duala? Ba-dakit nola geratu dan gure eria erlijio-gauzetan -Gipuzkoa'n beartzat euskera galdu den alderdietan. Baño erlijioa guzak eta kultura guzak, beste guziak bezela, bere neurian artu bear dira ifioiz ere nastu gabe bestela.....

Gai onetzaz ufengoa gelago.

Bolintxu, Pasionistek.



SARRI

## ONELA JOKATUKO AL ZIÑAKE?...

Eguneroko gertaera bat artuko dugu idazlantxo onen oinarritzat. Zu apaiz zera. Alako uri batera joan-berri zera. Barruak lanera deragizu. Nundik asi? Gazteditik. Nola asi? ...

Gertaera bat.

"Imanolek amalau urte dauzka, amabost betetzera dijoa aurki. Orain urte ta erdi lanean asi zala. Elizkoia zenun. Baita bere gurasoak. Bi apaizen oso laguna. Parroki inguruan ibilli oi zen asko. Eztakit zer gerta zaion. Elizan oso gutxitan sartu oia da. Apaizengandik ere igestka bezela dabillega dirudi. Begitan ere artu ez ote ditun edo... Bere izateak ere beste tankera bat artu du. Zearo antzaldaturik dakust. Zer dala-ta aldaketa ain zakarra?"

Ona gertaera onek derakusguna:

1) Eratasunik, azakera sakonik gabeko gaztea. Bizialdatze ortan kristauki lokatzeko ta tinkotzeko etzaio gertuarazi. Etzaizkio aurretik erakutsi langille-bizitzak sortzen dituan arazo bereziak. Etzaio bizikera ortarako barne-tankera sendo bat eratzen lagundu. Ezta naiko ematen zaien kristau-ikasbidea.

2) Parrokia ere arazo aueta egokitu gabe dago. Langille-girotik landa ari da, Eztu,erriko atalik garrantzitsuena ezagutzen,

3) Eliza bera nagil ari da. Gazteak garai ortan Instituzio bereziak bear lituzke babes bezela. Lanak sortzen dion arazotasun berezi ori argitzen ta kristauki gaintzen ikasi dezan. Giro ortan nola jokatu jakin dezan. Bere noratasuna atz ortan ito ez dedin.

Gauzak onela egonik zer egin dezaket nik?... Errria ere eztet ezagutzen da... Nola sakon ezagutuko nuke? Zer jakin bear dut?...

G A L D E K E T A

- 1) Zenbat langille gazte daude nere parroki edo auzoan?
- 2) Nungoak dira izatez?
- 3) Ze sasoiko dira? Gaitzak? Gogo-giroa? Aiurrea?
- 4) Nolakoak dira bere sendiak? Elizkoaiak? Ezkonduak? Ezkon zuzenak? Ezkon nastuak? Sendo osasuntsuak? Sendi ugari tsua?
- 5) Giza-baliarik berezientak? Adimen-tankera? Barne-tankera? Elkartasunik ba al dute? Abegi oneko al dira? Erligio tasuna? Erligioak kutsutzen al du gizarte-bizitza?
- 6) Nun bizi dira? Beren etxean? Eraendutakoan? Lilitegiarekin? Etxearen inguruak? Nun datza etxeak? Etxe otza ala bere aundikoa? Zenbat gela ditu etxeak? Neurriak? Tresnak? Aireak?...
- 7) Zeren bearrean arkizten dira? Jakiak? Jazkiak? Dirukontuak? Kultur-phisikoa? Samurtasun-bearrik? Benaztasun bearrik? Lepalpen-bearrik? Eresirti-bearrik? Abeskisun-bearrik? Lasatasun-bearrik?
- 8) Zerez bizi dira? Lapurketaz? Peoitzen?
- 9) Zertan nabaitzen dira oinpetuak? Osasuna? Osasun-biderik ez? Askatasunik? Kokuak?
- 10) Beren lepalpetasuna? Beren asmotasuna? Askatsuna? Noizpenka barnera edo etxean gorde al leike? Automatak al dira? Erriaren iritzien goraberatan nolaz jokutzen dira?
- 11) Ze arazo dute beren iritzietan garrantzia? Nolako joerak edo eragiten die ta ajolazten? Politiko-arazoak? Kultur-gaiak? Adi-gaiak? Joku-goraberak?
- 12) Nork zuzentzen ta akulasten ditu arzo ta joera oek? Ze eratako gizonak dira eragille oek, kultut-politiko naiz erligio aezoon? Zergaitik dute abegi ona?
- 13) Egiz ala itxuraz bizi dira? Beren jomugaren berri ba al dakite jakin? Giza-izatearen aunditasuna baliatzen al dute bear denez? "Slogans" ta era ontako esamesetan bilduak bizi al dira? Inuietan sifetsiki bizi al dira? Ja

kitunak ala ezikasiak dira? Ba aldute edo salatzan al dira iritzipen sakon bat eratzek geartaerak neurritze arren?

- 14) Jende-sartu-aterarik ba al dabil? Sartu ala atera? Zer dala-ta? Berezitasunik?
- 15) Parroki edo auzoaren lan-tankera edo lan-motak? Ze lan-gille-mota duzu errikoiena? Burni-lana? Arrantzealea? Meatzaria? Nekazaria?
- 16) Zeintzuk dira ogibide, industri ta lanbide-mota berezienenak? Zenintzuk dira alderdieteko berezienenak?
- 17) Ze eratako dituzu lanbide auek? Aundiak? Txikiak? Izen-geak? Lan-ki-detzak?
- 18) Nun jarriak daude azokak? Ze inguruetan?
- 19) Nun jarria dago sendagille-saila? Garbiketa-lagua? Igarri-baltsak? Senda-etxeak? Ume-etxeak?

\*\*\*    \*\*\*    \*\*\*    \*\*\*

Ba al zenekin au dana? Ona galdeketa labur onek derakuskizuna:

- 1) Eztuzu zeure erria ezagutzen. Iñundik ere!...
- 2) Bear-bearrezkoa dut ezagutzea. Emendixe asi

bear dut.

Auxen da amaiz baten abi-unea: lan-gaia ezagutu. Auzoa barren-barrendik ezagutu. Ontarako iru gauz bear ditugu:

- 1) Len-leenik gizakiak zeatz ezagutu. Ontan galdeketaren surreneko amalau galderak lagunduko dizue baitipat.
- 2) Gizaki oek "nun" bizi diran ondo jakin. Beren bizi-leku ta lan-lekuen tankerak zeatz aztertu. Ontan amabostgarren-go galderatik emeretzirafoko galderak lagunduko digute.
- 3) Bi oen ondorearekin langillearen egoeraren ikuspen zeta bat eratu.

Onela, langille-giroaren giltzarri-arazoak ezagutu. Langiltasunaren naiak ezagutu. Geroaren azkoraldiak ikus-miatu...ta. Ita bein lan-gaia, gauzak ondo ezagutuz ge-

ro "arazotasun orreri" erantzun egoki ta bidezko bat gertu. Eta gure ekitaldiak, gure lana ondorioitsu izango da, gauze tan sakon oinarritua, suzo-giroan ondo mamitu. Askori ger ta oi zaien goialdiak, errialdi ta bestelako gogo-aulgarrri jazo askoren berri eztegu jakiten. Borondate onez baño alpe rrikako lanetan lertzen dira. Eztute ondorioirik nabaitzen i ifun ere, ta onetxek lur-joarazten die. Ez dira bear beze la jokatu. Beak uste bezelako, edo amest bezelako luditxo baten lanean jo ta ke asi dira, baño...ametsa amets!

Ontarakoxe duzu "SSociologia religiosa" deritzon jakin-sail ori. Gutxi-goraberaka ibilli ez gaitezten.

Nola jokatu apaiza bizit-aztertze ontan?

Len-leenik, bere jokera ta ekitaldi guziak biotze bear dute iturri. Apaizaren biotz sutsu bat. Animaekiko zale tasuna. Paulo Donearen erdi-miñak. Irasekiz daboen biotz batetik erne bear dira jokabide guziak.

Maitasuna, maitasun sakon, bgiatzko bat era onta ko asmo ta sailo guzietan. Naiz ta langille-giroa' zeatz es gutu ez, biotzez urbildu, izate osoaz jokatu. Aurrenik beren billa irten, beaien menpeko asaldu, beren deitara ernai e gon. Biotzetz-biozt jokatu langillekin.

Bra ontan ezarian-ezarian ezagunak egingo zaizki gu. Aurrenean; noski, ezaguera il luna, nolabaitekoa izango da; baño, yxeetu ere egingo da. Ta ustekabean gure giazako gizaseme batzuk gertatuko, ezer-argizkoak, atxegin-atsekab tan naastuak ditxaroten gizonak...

Une ortentxe sortuko zaizu "galdeketa" ren bearra. Asmo onen burutzeko bear izango duzun gazte batzuen bearra, gaztedi-giroan sartuarazi, egingo zaitu.

Oraindik gizon zera, gizon bezela jokatu zera. Gizon utsa zera besteen iritziatan ere. Baña gizon baño Apaiz bear luzu, ta apaiz legez jokatu bear zera. Orain sakonago ezagutzen duzu langille-giroa. Ona zure betebearra: langille-giro orreri kristau erantzun egoki bat gertu.

Urrena, apaizak giro-aztertze ontan nola jokatu bearcan ikettuko degu.

Joxe Mari Osa O.F.M.

## GIPUZKOAN BARRENA...

Oar bi:

Emen agertu lana eztuzu ez apaiz ez prai legaiena. Gure Euskalerriko industri-erri batean sartuta da billen gizaseme kristau batena bazik.

Errenteri'ko J.O.A.C.-batzarreko gazteak Gipuzkoan barrena egiñiko ikerraldi bat besterik eztuzu. Langille-gaztedi orrekin ar-eman estuak dabilzkigu aspaldidanik. Maiz iuatzi oi gera. Guk gure kristau-asmoen arnas beroa ematen diegu; ta gazte katoliko jator auek beren lan-arazoak, gizarte-arazoak, Eliz-arazoak, argi ta garbi, berak dakusaten eran. Onak elkar ezagutzera, elkar iriztera, elkar jokatzera, elkar maitatzera ta burrukatzera deragizu.

Onako lan au ere, eztuzu besterik. Baño oartxo bat egin nai nizuke. Izan ere, lan onak gure Gipuzkoan langillea nola dagoan azaldu nai digu. Ikerraldi au joan dan urtearen udazkenean egin zuten, eta aurtengo asieran burutu. Orduan zenbait aldaketa izan dira sari-arlo ontan. Sariaren 19% igo zutela jakin badakizute, naiko zarata atera zuten ipui onekin-da. Baño, alare, jakinen duzute bizimodua ere altxa egin zala. Etzuan onekin langilleak ezer atera. Ongatik emen agerturiko bizibide-maila doi-doi ekarria dago.

Pentsa dezagun benaz gure kristau-langillea nola dagoan. Zer esaka genezaioke era ontan bizi dan gizaseme bateri? Euren sabelak ere asetzeko lain irabazten ez duten gizasemeei zer kristautasun ta zer asmo lilluragarri aurkeztu genezaioke?

... ..

Zuek egin zenidaten galderai erantzutera noa, eta nere erara egingo dut, guk emen jardunaldia eginda daukagun erara. Aldez aurretik asaten dizuet, lan au orain bi urte egindakoa dala, eta jakina, ordutik onera gauzak aldatu ere egingo zirela gutxi asko.

1<sup>o</sup>go galdera: Zenbat irabazten du langillle batek bere biziaraaldietan zear?

Galdera oni erantzuteko zerau esango dizuet lene go: galde orri zeatz eta meatz erantzuteko kaso bakoitza estudiantu bearko litzakela, adin berdiñeko diranetan ere oso jornal desberdiñak bai-badaude, eta batzuk baño geiago saritzen diran beste ogibideak ere bai. Baña guztienak berdin samar egifiaz, guk egin dugun bezela, erabaki ezertarako samarra eman leike. Dato zuek Gipuzkoako lantegi batetik eta bestetik ateratakoak dira.

### Mekanikoak

| <u>Gizarte-maila</u>              | <u>Bizkera</u> | <u>Adiña</u>             | <u>Egun osoko saria</u> |      |                     |   |
|-----------------------------------|----------------|--------------------------|-------------------------|------|---------------------|---|
| Kontuartzalle                     | Ezkondua       | 40 <sup>o</sup> tik gora | 45 <sup>o</sup> tik     | 65   | ptz <sup>o</sup> ra |   |
| Ofizioduna 1 <sup>o</sup> gkoa    | "              | 25 <sup>o</sup> tik      | " 35                    | " 50 | "                   | " |
| " 2 <sup>o</sup> "                | Ezkongabea     | 20 <sup>o</sup> tik      | 26 <sup>o</sup> ra      | 28   | " 38                | " |
| " 3 <sup>o</sup> "                | "              | 17 <sup>o</sup> tik      | 22 " 23                 | " 32 | "                   | " |
| Peoi Especta. 1 <sup>o</sup> gkoa | Ezkondua       | 35 <sup>o</sup> tik      | 50 " 25                 | " 33 | "                   | " |
| " " 2 <sup>o</sup> "              | Bitakoak       | 23 <sup>o</sup> tik      | 35 " 21                 | " 26 | "                   | " |
| Ikasle 3 <sup>o</sup> gn urtekoa  | Ezkongabea     | 16 " 17                  | " 15                    | " 21 | "                   | " |
| " 2 <sup>o</sup> gn "             | "              | 15 " 16                  | " 12                    | " 16 | "                   | " |
| " 1 <sup>o</sup> gn "             | "              | 14 " 15                  | " 8                     | " 12 | "                   | " |
| Pintxea                           | "              | 16 " 21                  | " 17                    | " 24 | "                   | " |
| Peoia                             | Bitakoak       | 25 " 35                  | " 21                    | " 30 | "                   | " |

LABEETAKOAK

| <u>Bizkera</u> | <u>Adiña</u> | <u>Egun osoko saria</u> |           |
|----------------|--------------|-------------------------|-----------|
| Ezkondua       | 40'tik gora  | 55'tik                  | 75'pstra. |
| "              | 35" "        | 44" "                   | 60" "     |
| Ezkongabea     | 28" 35'ra    | 26" "                   | 55" "     |
| "              | 22" 30" "    | 32" "                   | 40" "     |

---

PERTZOLA

| <u>Maila</u> | <u>Bizikera</u> | <u>Adiña</u> | <u>Egun osoko saria</u> |       |
|--------------|-----------------|--------------|-------------------------|-------|
| Of.1'koa     | Ezkondua        | 35'tik 50'ra | 46'tik                  | 60'ra |
| " 2'koa      | "               | 30" 40"      | 42" "                   | 50" " |
| " 3'koa      | Ezkongea        | 20" 30"      | 35" "                   | 45" " |

---

AROZTEGI

| <u>Maila</u> | <u>Bizikera</u> | <u>Adiña</u> | <u>Egun osoko saria</u> |           |
|--------------|-----------------|--------------|-------------------------|-----------|
| Kontuartz.   | Ezkondua        | 40'tik 60'ra | 55'tik                  | 75'ptzra. |
| Of.1'koa     | "               | 40'tik 50'ra | 35'tik                  | 40" "     |
| Of.2'koa     | Ezkongea        | 30'tik 40'ra | 32'tik                  | 35" "     |
| Of.3'koa     | "               | 22'tik 30'ra | 26'tik                  | 30" "     |

---

PAPERGINTZA

| <u>Maila</u>      | <u>Egun osoko saria</u> |          |
|-------------------|-------------------------|----------|
| Trebelameku 1'koa | 28'tik                  | 32 psta. |
| " 2'koa           | 24'tik                  | 28" "    |
| " 3'koa           | 20'tik                  | 25" "    |
| Kontuartz         | 48'tik                  | 55" "    |



OFIZIENAK

| <u>Maille</u>          | <u>Egun osoko saria</u> |
|------------------------|-------------------------|
| Of. 1 <sup>o</sup> koa | 55'tik 65 pstra.        |
| Of. 2 <sup>o</sup> koa | 42'tik 50 "             |
| Laguntzaillea          | 34'tik 40 "             |

Sari auei zera erantsi bear zaio: illabeteko gratifikazioa, urteroko eskuera-kutsi Eguberritan, beste oi-gabe ko sari bat edo beste orduegatik etab... eta ezkonduer puntuak.

Soldata auek audenetako sundienak dira (geiago irabazten duten lantegietakoak ere badaira baiña oso gutxi) lantegi txiki asko baidaude zenbate auek pagatzen ez dituz tenak.

Aldi berean egin genduan bizitz-galestitasunari buruzko jarduna jarriko dizuet-jarraituan:

SETAR-EMAZTEAK BAKARRIK1<sup>o</sup>go Jatena (janaria)

|               |               |                |
|---------------|---------------|----------------|
| Bero-bearrak: | Senarrak 3600 |                |
|               | Emazteak 2500 |                |
|               | Guztiak 6100  | beroki eguneko |
|               | 42700         | asteko         |

| <u>Berokiak</u> | <u>Asteko jena</u>                  | <u>Asteko gastua</u> |
|-----------------|-------------------------------------|----------------------|
| 2800            | Esnea 7 l. 3 <sup>na</sup> . pagtn. | 21 pata.             |
| 17500           | Ogia 7kg. 52"                       | 35 "                 |
| 11365           | Olio 1'25 1'14 "                    | 18 "                 |
| 4625            | Patateak 5kg. 2"                    | 10 "                 |
| 504             | Arrautzak 8 1'66 "                  | 13'28 "              |
| 714             | Aragi 1/2" 28"                      | 14 "                 |
| 454             | Arrai 1/2" 10"                      | 5 "                  |
| 2000            | Azukre 1/2" 11"                     | 5'50 "               |

|            |                  |                          |   |            |
|------------|------------------|--------------------------|---|------------|
| 3125       | Babarrunak 1 kg. | 10 "                     | " | 10 "       |
| <u>500</u> | Especiak etab.   |                          |   | <u>6 "</u> |
| 43586      |                  | Asteko guztiak 137'78    |   |            |
| 6226'5     | eguneko          | Eguneko..... 19'68 pzta. |   |            |

2'go Jantziak

|            |                 |                   |            |
|------------|-----------------|-------------------|------------|
| Gizonak:   | Galtzerdi       | : 4 pare urteko   | 100 pzta.  |
|            | Barneko erropa  | : 2 joku          | 40 "       |
|            | Zapatak         | : 1 (pare)        | 200 "      |
|            | Jersia          | : 1               | 150 "      |
|            | Alkandora       | : 2               | 200 "      |
|            | Traje           | : 1 (bi urteroko) | 1500/750 " |
|            | Buzo            | : 2 urteko        | 300 "      |
|            | Sudurrapi       | : 6 urteko        | 30 "       |
|            | Gabardina       | : 1 (bi urteko)   | 500 "      |
| Emakumeak: | Zapatak         | : 1 (pare) urteko | 150 "      |
|            | Traje           | : 1 urteko        | 900 "      |
|            | Andra-galtzerdi | : 2 pare urteko   | 120 "      |
|            | Jersia          | : 1               | 125 "      |
|            | Barneko erropa  | : 2 joku          | 200 "      |
|            | Sudurrapi       | : 6 urteko        | 30 "       |
|            |                 | Guztia urteko.... | 3795 "     |

3'go Bizitoki eta beste guztiak

|                                     |     |                 |            |
|-------------------------------------|-----|-----------------|------------|
| Illeko alkilerra                    | 150 | Eguna           | 5'00 pzta. |
| " argi ta ura                       | 25  | "               | 0'83 "     |
| Errekifia 2 kg. (psta. bana)        |     | "               | 2 "        |
| Asteko jaboia 0'75 (14na. pzta)     |     | "               | 1'50 "     |
| Lejia botilla 1 (1'50 pzta. asteko) |     | "               | 0'21 "     |
| Tokizaldatzea                       |     | "               | 1'60 "     |
|                                     |     | Eguneko guztiak | 1'14 pzta. |

Eguneko guztiak

Janaritz.....19'68 pzta.  
 Jantzia.....10'39 "  
 Biztoki ta besteak.....11'14 "  
 Guztia 41'21 pzta. eguneko

Sendia. Senaremazteak 5 urteko seme batekin1<sup>o</sup>go Jatena

Bero-bearra: Aitak 3600 beroki  
 Anak 2500 "  
 Semeak 200 "  
 Guztia 7300 beroki egune  
 (ko

Berokiak

3600

20000

13639

4625

765

1071

681

3000

600

3906

51864

Asteko jana

Esnea 9 l. 3'na.pzt.

Ogia 8 kg.5'" "

Olioa 1'5l.14" "

Patatak 5 kg.2" "

Arrautzak 12ko bat 20" "

Aragia 0'75kg. 28" "

Arrraia 0'75kg. 10" "

Azukre 0'75kg. 11" "

Especiak etab...

Bebarrunak 1'25kg. 10" "

Asteko gastua

27'00pzta.

40 "

21 "

10 "

20 "

21 "

7'5 "

7'75 "

8 "

12'50 "

174'75 pzta.

Eguneko 24'96

7410 beroki eguneko

2<sup>o</sup>go Jentzia

Aitamak urteko .....3795 pzta.

Semeak zapatak..... 100 "

barneko erropa: 2 joku..... 50 "

Traje : 1 urteko 300 "

Galtzerdi : 4 pare urteko 80 "

Jersei.....: 1 urteko 75 pzta.

Urteko guztia: 4400 pzta.

Eguneko : 12'05 " .

3'go Bizitoki ta beste gastuak

Semerik gabe ~~beetela~~ bezela eguneko guztia: 11'14 pzta.

Eguneko guztiak:

Janaria.....24'96

Jantzia.....12'05

Bizitoki etab..11'14

Eguneko guztia: 48'15 pzta.

5 personako sendia

Senideak 20, 18, eta 8 urte dauzkate.

1) Jatena

Berobearra: Aitak 3600

Amak 2500

Semeak 3000

Alabak 2400

Alabak 1680

Guztiak 13180 beroki eguneko.

Berokiak

Asteko jana

Asteko gastua

Esnea 14 l.

42 pzta.

Ogia 14 kg.

70 "

Olioa 2'5 l.

35 "

Patatak 13 kg.

26 "

Arrautzak 20

33'20"

Aragia kg. 1

28 "

Arraia kg. 1

10 "

Azukre kg. 1

11 "

Gaz, tipula, tomate, etab...

30 "

92322'5

Asteko guztia..... 300'20 pzta

13188'9 beroki eguneko.

Eguneko gastua... 42'85 "

2) Jantzia

|                   |                             |             |        |
|-------------------|-----------------------------|-------------|--------|
| <u>Gizonak:</u>   | Galtzerdiak .....           | 8 pare urt. | 200pz  |
|                   | Barneko erropa.....         | 4 joku      | 80 "   |
|                   | Zapatak.....                | 2 pare      | 400 "  |
|                   | Jersea.....                 | 2           | 300 "  |
|                   | Alkandora.....              | 4           | 400 "  |
|                   | Traje 2, bina urtero (3000) |             | 1500 " |
|                   | Buzo.....                   | 2 urteko    | 300 "  |
|                   | SudurZapi.....              | 12          | 60 "   |
|                   | Gabardina 2, bina urtero    |             | 1000 " |
| <u>Emakumeak:</u> | Zapatak.....                | 3 pare urt. | 400 "  |
|                   | Andragaltzerdi.....         | 4 pare      | 240 "  |
|                   | Galtzerdi.....              | 4 pare      | 80 "   |
|                   | Jersea.....                 | 3           | 250 "  |
|                   | Barneko erropa.....         | 6 joku      | 600 "  |
|                   | SudurZapi.....              | 6           | 30 "   |
|                   | Urteko guztia.....          |             | 8840"  |
|                   | Eguneko " .....             |             | 24'41  |

Eguneko guztiak

Janaria.....: 42'85 pzta.

Jantzia.....: 24'21 "

Bizitoki etab.....: 13'02 "

Eguneko guztia 80'08 pzta.

Dato suekin, sariak ikusita, zerok atera zeneza kete kontuak. Baita ikusiko duzute oso gutxi dirala dirua eltxetxuratu dezaketenak; gastu ori, al ditekenik txikiena dala kontuan artuta. Ain zuzen dirurak gelegitzen baldin bada premi txikiagoko gauzetan (baiña beti premi estuetan) orduari edo erloju, liburu, ikasketa etabarretan xantzen eta gastatzen baida. Mundik eta nola ez dakigu, baiña jendeak nundibaitetik atera bear izaten du dirua, guk jardunaldi ontan ikusitakoa baiño gastu sundiagoa egiten du-ta; lan sariak, berriz, leagoko orrian ezarritakoak dira. Nik ez dakit jana uzten badute ere beste gauzak erosteko. Geiengtan beste aparteko irabazbideren bat ere izaten dute: emaku

mezkoak interinotzan, eta gizonezkoak orduak sartzen.

Azkeneko galdean zera esaten diguzute: Ia dirua eltxetxuratu dezaketanak egiten duten. Guztietatik dago; baiña al dezaketenek, eltxetxuratzen dute geienek, bear ain bat ez bada ere. Dirua erabilgarri eukitzea bizikera lasaigo batentzako bidea baida, eta gutxiago begiratzen zaia diruari. Azkeneko ontaz ezin igorri dezaizueket dato zeatzik euki ere ez baldauzkat.

1956



TANTZE

TA  
ELERTI



Ereztia - Txirbilak

Ez muzin egin, irakurle. Ain otsaundiko Matteo Marangoni ren " Para saber ver " irakurri berri nauzu. Irakurri baño irentsi egin dutala derizkiot, eta jakiña... ezin nik nai bezin askar egosi.

Idazti sakon onen arnaspean idazlantxo bat edo gertzeko asmo nuen, baño ontarako astirik ez ta, emen dakaraz kitzut nolabaitean euskeraturik, azken-orristan "viruta" ize nez dakarazkin ertuari buruzko gogai batzu.

Urrena, Jainkoa lagun, idazti onen laburpen bat gertuko dizut. Tori, bada, aukeran txirbil-sorta bat...

"Era" ren derriortasuna argi ta sakon nabarmentzen da bi erti ezin batze ortan. Eresidun-antzerkian gerta oi da na, adibidez; naiz-ta ereslaria ta olerkaria nor bat izan. Wagner zenun onelatsu. Berauxe gerta oi da eresi-lan batean. Nai ta naiez eresia edo olertia nabarmenduko da; odo bestela, biek batera ezin inolaz gozartu genezazke. Izkuntzaren ezberdintasun sakon onexek bereizten bait du elerti oro. Askotan ezagutu izan ditut olerkari ta elertilari antzetsu asko eresertirako bat-ere gaitasunik, arnasik gabekoak, naiz-ta antziñateak kideko eritzi izan. Kondairan zear "erti aizpak" izendatu oi izan zaiolerti ta eresertiari, zer-eta eresian batean joka oi dutelako.

Ertia zeastasun, araubide, eratasun dala ametiturik, "erti" itz-kerak bear auek "olerti" itz-kerak baño areago betetzen ditula derizkiot; azken au mugabako, erabako, adi abeko gauzen azalpen uts bait da.

Olerti ta ertia orobat ez dirana irargitzeko ezau piderik ziurrena "errikoi ertiak" damaigu; izan ere, naiz-eta olerti aberats izan, erti arruntagoa da ain era kaskarrekoa



dalako.

~ ~ ~

Egi da oso, erti-landan ere matxinadak bearrezkoak dirana; bañan auek "oldezkoak" izan dira beti -ia nai-izan eztakoak nioke-; ots, ertilariak etzuten "a priori" orrelako elbururik, nai gabeko ondorena baizik. Egun, aldiz, ertilari gu zien amets da bide berriak urratzea, sidari duten Picasso ren antzera. Au ere ertilari baño "iritz-epailari" dugula derizkiot, beste margolari-mota askoren jarraitzalle izan bait da.

~ ~ ~

Aunitzen iritziz ertia "biotzetikoa" litzake, ots, biotza luke iturri. Au dala-ta, ertia alde ontatik besterik ez dakusate. Urri dira -egungo esamesaen aurka- ertia bear bezela baliatzen dakitenak. Ez dakite ertiak "biotza" gaiaz askatzera -materi baita-, ta biotz-begiak erara zozoztera -era gogo danez- deragiguna. Ertia aditu ta biotz-nabaizteko bioztitasuna baño bearrezkoa zaigu sentimena. Eta "zentzukoiak" "bioztiak" baño bakanago diranezkeroz, bakan-bakan izan oi dira benetako iritz-epailari edo kritikokoak eta benetako ertilari.

~ ~ ~

"Olerti" deritzana izadian bertan ere ba'digart (ufe txindorra); "ertia", berriz, gizonaren asmakizun eta sorkari da: aski derizkiot zio au ertia olertia baño gai bakan eta euerrago dana eusteko. Egun, ordea, erti-arloan olertia nabar mendu oi da baitipat; olertiak edonor gogo-betetzen dualako, ertiak, ordea, ontarako gai diradenak bakarrik, ots, arloan eziak.

~ ~ ~

Kaltegarriago zaio ertilari bati berarekiko uste epel-bi durtia, uste oso-betea baño.

~ ~ ~


Maltzurkeria -erti-arloan ere- nor ez diran gizo  
 gerta oi da; toles, etasuna, oldea, berriz, jator ta garaileen  
 izur berezia.

bizitzan "aul" tzat eritziak, maiz erti-baratzean  
 "sendoak" gerta oi dira; mintzo bitez Chopin, Leopardi, Ver-  
 laine, Modigliani.

Zer dala-ta erti-baratzean gai errezena, bakunena  
 gerta oi da atse in arriena?...

Atse inago izan oida Mozart Beethoven baño, Ver-  
 di Wagner baño, Manzoni Mendel al baño, Masaccio Miguel Angel  
 baño. Zer dihur onek ez ote da gizonen, oldez eta berez,  
 naiago dutela "clásico"-joeraren bare ta argia, maiz-eta e-  
 gungo "ultrarromanticismo"-joeraren zarata-otsa ta urdur-  
 tasuna?...

Bastarrika tar Iñaki.  
 arantzazu ko prailea.



Gazte naiz eta zahar.

Dorre berriak bezin gazte  
Ta inguruétako arkaitz-yasoen  
Zahar-lurruna  
Nere bizkarrak daramate.

Zahar naiz izan, egitan.  
Baiña,  
Gaurko aldien  
Zantzu ta irudi  
Darakust niñir  
Begitan.

Arranoak eztu bein ere  
Egiten kabia  
Zelai loretsu batean.  
Arkaitz-tontorren gallur-ertzean  
Aukeratzen du tokia.

Nola nai dezun ni izatea?  
Ni izatea ?

Nax baithan babesten dut  
Arantz-gañeko Paregabea.

Begira ormak,  
Begira dorre,  
Begira Birginaren oiñak...

Ta inguruétako  
Arkaitz, leiza, basoak,  
Ez al dira nerekin batera  
Soldatu ta yasoak ?

Aien artean  
Nola nai dezun  
Ni izatea ?

Aitz-gorri mendi, zillar-arresi  
 Magalean dut yarleku,  
 Izugarritzko leiza ta troka  
 Ditut oiñarri ta eredu,  
 Euskalerrria, burnizko erri  
 Nere aurrean ixpillu...

Ez al naiz ni  
 Paraje oien  
 Kimu egoki ?

Nere Erregiñak  
 Arantz gainean  
 Yarri zitun bere oiñak...

Benetan ere,  
 Irain nintzake " inguruari "  
 Naizen erara ez baina  
 Yayoa banintz  
 Guri guri...


Eguzkiaren galda beroak,  
 Zeru-eder-oztin-giroak  
 Laztantzzen naute emaro.  
 Baita ekaitz-gogorrak,  
 Elurte, euri, aize zakarrak  
 Astindu ere oparo.

Denak ordea,  
 Arkitzun naute  
 Irriparrez n  
 Naro naró.

Kopet illunak  
 Ikusten ditut nere oiñen ingurumari  
 Berria" naizela-ta  
 Izketan marmari.

Gajoak!

Galde inguruetako  
 Arkaitz-arantz-basoak,  
 Aspaldiaren gain  
 Nerekin dira  
 Eratu ta yayoak.



Bide ertzeko belar,  
 Garo usaintsuak,  
 Mendi-tontor gurutz yosiak,  
 Pago sendoak,  
 Oparo dixurten  
 Otoi ta lurrun  
 Aspaldin nitun  
 Anai ta ezagun.

Aien izketa, aien negarra,  
 Aien yakituri, aien zaharra,  
 Nork yakin eta uler  
 Nik bezela ?  
 Ikus  
 zazu,  
 Aien  
 Kimu  
 Egoki  
 Bakarrik  
 Ez baiña,  
 Erregin  
 Liraiña  
 Naizala...

Berasaluze tar Sabin  
 Arantzazuko teologu-lari.



## O BAKARTETXE

1) Mendi tontorra aulki duzula  
 ortze garbia estalki  
 baso soilune belartsu ortan  
 etzanik zakust apalki  
 beso sendoak eten bearrez.  
 otoizka gora luzaki;  
 O Bakartetxe, lillura ori  
 bai ote nezake jalki!...

2) Erritik urrun zerutik urbil  
 zuaitz-bakartasunean...  
 eder-jarioz itxutu nauzu  
 eguzkiren dirdaipean;  
 norik autatuko ote zizuken  
 txoko oberik lur gañean?...  
 O Bakartetxe, bai zoriontsu  
 nintzakela zurenean!...

3) Nere erriko zoko illuna  
 bein betiko utzi nairik  
 lur-grina, kezka, maitakeriak  
 mendi oiñan eortzirik  
 aidapa gora Zugana noa  
 soiñ-gogoak garbiturik.  
 O Bakartetxe, ez zakid'arren  
 itxi zorion aterik.

4) Mendiak berez baditu noski  
 edertasun bereziak  
 bañan'alar'ez gañez asetzen  
 zorion-grina guziak.  
 Otoi-kabi nai luke biurtu  
 nere Jainkomiñ biziak.  
 O Bakartetxe, zuk narakarzu  
 ta zure bidez, ortziak.

5) Biotz-barnea mendi gañetan  
 poz-dardaraz zait lertzen  
 maitea urbil dabilkitala  
 bai du agian igartzen;  
 baso bakarra, ixiltasuna  
 arretaz zaito mintzatzen.  
 O Bakartetxe, kabi goxoan  
 zuk dituzu biak salzen

zuk dituzu biak batzen.


6) Zure barruan bizitza ezin  
iruditu aspergarri  
bizi-lagunen irri xamurra  
neketan dut aringarri,  
otoi-lanetan,maite-izketan  
jardun,biotz-goxogarri.  
O Bakartetxe, zu zaitut agiz  
Jainko-etxeko atari.

7) Mendian zear egurastea  
biotza pilpil zait asten  
asezkorra naiz bas'orrazetik  
zorion-etzia mizten,  
lore-belarren usaia arnastu,  
txorien kantak entzuten...  
O Bakartetxe, izadia bai  
asmakor dala zu jazten!...

8) Zorionean ez nik kiderik:  
aldiz, lurbira barrena  
begiratzean, biotz garbia  
bai dut poz lor'ederrena;  
aldiz, begiak ortziratzean  
poz-iturri-ur gaudena,  
O Bakartetxe, zuk ernetako  
betiko itxaropena.

Baztarrika'tar Isidor

Lazkau'ko Benedit.



## AIDE ZALARREAN OROIMENEZ

(Amairu urte aldenuta egon ondoren ikustaldi bat egin arretsean)

Bai zabal arratsaldeak

Bai nare, bai kutun baserria estaltzen dun arratsalde!

Bai, nere arratsalde! Oropen-aidezko arratsalde betikoa!

Blai dago arratsalde oroipen urriñez.  
Oroipen miñezko baserria

Igaro dan zerbait al esan naiez.

...Izan ere onen ixil dago!

urrizki zugaitzak euriz ezkoturik, bizitz sentimentuz,  
bai bizi, sentikor baserri aldeko zugaitzazkotuak!

Izan ere, onen apal eta geldi daude!...

... ..

Badatoz menditik aitaren idiak.  
Badatoz etxeruntz zuhur eta astun.

Arratsaldearen izankide ote?

Badatoz geldiro aita ta idiak  
zuhur eta astun izate pixu bat balekartekean.

... ostro iartuak zapaldu dituzten idi aiek datoz.  
Loro eta mendi, zelai eta bide  
mutil on arekin ibilli-idiak  
mutiltxo on arekin ibilli-aita.

Gero  
korta-atearen kirrinka mikatza,  
kate-otsa eta aberen mariua.

-Atsokoa eta gaurkoa dan zerbait-

Lor da arratsalde. Maltxotsen ari da.  
Easten, bat egiten argia ta iluna.  
Lauzak  
euerengan bildurik-zerodit ausnartutzen...  
zerodit amestu naiz... gelditutzen dira  
zerodit sentitzeko, arnasari autsiz...



maitasun albetan zegoan izadi  
-seldiro ta lezun ona ixil-bizi.

lokatz eta otzeko illunabarrean  
txakur bat zaunka.

Ixil-une zabal... ..

rdi txilinak ta ixillune.

Umien abotsa. Errekearen joana.

Ixil-une ta errekearen joana... ..t'illuna.

Bai eme estaltzen aua gauak baserri maitea!

Maite dut; nerea da izan ere...

izan ere, onen bat gaude nerea eta ni...

... ..

Sukaldean berriz, silueak an emen, plater oatzun otsa.

Ama, aita, anai arrebak,

denok itzegiten, ta denok pentsatzen...

ta denok maitatzen... ..ta denok sentitzen.

Izan ere, onen betiko gauzak dira...

izan ere, onen betiko nere bizitzan...

Lehen-orain-gero larion urriña dago sukaldean.

Lehen-orain-geroko maitasun izkutuz inguraturik ni

itzenginda entzuten, jaten parregiten...

daneri begira nagon bitartean.

... ..

Nagi ta banaka jeiki giñan maitik.

(Aspaldi aietan bezela gaur ere).

Bereala doi dut txintia autematen.

ta ni balkoitian kanpora begira.

Baserri txukuna, zuhaitz urtetsuak alboan ditula  
misterioz dago:

etxaurreko gauzak, lokatzeko oiñatzak...

nere aurtzaroko edera bezela;

etxaurre onetan bere irudia utzita joan dan

nere aurtzaroko ederra bezela

Ezin-miñezko gaua dut gogokoena.

Nik ere barruan tristetasun maite atsegin bat daukat.

Lantxerra bezela zabaldu naiz ezko gau ezko onetan.

gaietz desaidaten eziñezko naiak nabaitutzen ditut.

...eta atsegiñez oroipen goxosk miazkatzen naio.

oroizko usai usmatzen barnetsu.

Soroen usaiq, mendien usaiq, etxe-zar usaiq.  
 Bete nereq dan zerbaiten usaiq,  
 ta beti natzaion zerbaiten usaiq.  
 Uroi-miñekiko gau bete onetan gozora dakozkit:  
 jolasak, lantxoak...  
 Oliberri argiz, autsezko udaetan  
 uzazken inausi ta negu otzetan,  
 betiko baserri maitagarri ontan  
 baitasun arteko baserri zarrean.

Herekin arrauri zauden gau ixilia!  
 Estiaren sehez kozatutzen gau!  
 Bai dago aidea oroién urriñez.  
 Estari zait poza eurién conua kristaletan antzo.  
 Bere poza  
 Miñera eldu dan nai-joran oizi bat  
 ezin atsegiña.

Le goiko artzen gub arnas gau zabalak  
 Estzeraño atzenca!

Onelare ixil artzen dute arnas nere gogetak  
 Estzeraño etzanda,  
 -enaren ecerrez- izarren azpian.  
 Ienen-orain-geroko gau!  
 Baitasun sedaz, eziñaren otzez, sentimentu labroz!

Izan ere, onen bat gauzkate izarrak  
 gaua eta ni baserri zarrean.

Astigarra tar Joxe Antonio  
 Arantzazu'ko teologilari.



## ALDARE AURREAN...

1) O Jesus Jauna, gaur goiz-goizean  
egin det amets bat goibel Zugan  
"Neri itxoiten ziñala aldarean...  
ni, berriz, Zuri begira lotan  
ona emen ezajola nerean".

2) O Biozbera, Zuganaturik  
emen nago autsaz biurturik,  
begiak jaso gabe bertatik  
egongo nintzake ixil-ixilik...  
Zurekin, bai, egoteagatik!


3) Malkoaz ditut, sarri, begiyak  
asko bai dira oben larriyak  
ene bizitzan izugarriyak...  
zoritxarrez..., ba!, negargarriyak  
barka bitzazkidatzu guztiyak!

4) Jainko Errukiorra, ikus  
zure onetan emen naukazu  
laguntza eske, lagun zaidazu  
bearrean dagonari..., aizu!,  
bere naia uka etzaiozu!

5) Azkenik, zatzazkida lillura  
izan zazu belarri makurra  
zerura nadin ezke, ziurra!,  
etzaitetz izan nitzaz ain zurra...  
entzun, ba!, ene azken... Agurra!

Susokun'dar Joakin Mari,

Lazkai'ko Beneditarra.



## ZAITEGI JAUNAREKIN

## JARDUNEAN...

Euskaldun jator ta egungo euskaltzale bikañeneta ko bat aberrira zaigu. Asmo aundiko gizona. Euskaldunok -gure izkuntz zaarrak baitipat- asko zor dio gure gizasemea. Naiz ta aspaldian atzerrian bizi izan, euskera, euskaldunon mintzai basati onen lantzeari ekin dio alik geien. Eredu bikaña eren kabitik urrun alanduak dabilten aunitz euskaldun entzat.

Orain sei urte atzerrian bere ardurapean euskerak izan duan aldizkaririk garaile ta gallurrena erne zala. Euskera maila galiurrenetara jaso duan aldizkari zorionekoa, "Euzko-Gogoa", alegia. Euskaldun askok izozkeriz inguratu dugun aldizkaria duen au, baño uste, abeko elburu gorenak zoritu ditu, alere. Euskera gallendu, yakin-gaietara egokitu, luma txairoenak bildu, euskera batasun-bidetik abiarazi, aunitz buruetatik euskerarekiko iritzi oker asko aiena: onatx aldizkari onen ondorio mardulenak. Eta gogoan jaso: au dena, Euskalerriak ta gure euskerak jasan bear izan dituan garai gorrienetan. Ekaitzaldi auen burrundan tinko iraun duan zuzaitz tinko ta sendo onen arnari elduak!

Berak burutua duzu "Bidalien egiñak". Euskeraz du gun irakurgairik garaienetakoa, yakintz-lanjan buruenik. Euskerak eldua, egiña darabil oso idazti ontan. Ulerkaitz baderizkiogu ere ezta bere erru, gure baizik; ez darabilzkitzu berak asmatu itz ta kerak, erri-errian errotuak baño, naiz ta egun agotan erabili ez.

Badituzu bere luma yoriak sorturiko beste zenbait idazti gogo-betegarri:

Sopokel'en antzerkiak  
Goldaketan (olerkiak)  
Evangeline (Longrelow).

Ta asmotan ere baditu beste zenbait. Itun-zarrari buruz, adi oidez. Korapillo batzuen-batzu askatuz.

- Zer erakarri zaitu Euskalerrira ?

- Aberri-yoranak bazeragidan zerbait, baño ez onak soilik. Emen bautut ene ama kutuna, emen audekoak, emen sortezria, arnasartu dutan eburatsa ere. Onak biotza akulatzen zidan, noski, baño beste asmo eragikoaragoak azkuretu naute lur-alkatze ontara: euskera-arloak, beigininitan uaramaadan mintzai zaar onen oraberak.

- Euskerak gutart era zaitu orduan ?

- Doi-doi. Atzerrian ezin burutu lezazkedan amets batzu, emen gatzatu nañ nituzke, bertakoen laguntzekin. Illun petan jarduteko garaia yoana dela uerizkiot. Euskera eizarte-maila guzietara barreia bear dugu, goi-mailakoen artean errotuarazi batez ere.

- Ze asmo dituzu onen burutzeko ?

- Euskal-Idaztetxe bat eraiki nunbait, yakin-sail guzietarako gizonak gertu ta Idaztetxe ortan bildu. Asmo utsa ez dut; itzea aisa lorturen dut, leku atseinean, ta euskal-tankera duana gainera; euskera besterik ezta entzuten.

- Ezta go gaizki oratarako beste asmorik ?

- Zailtxagoa baño derriorrezkoa uerizkiot: emengo ta bestaldeko euskal-idazleen elkartasuna. Ez dute aiek gure berririk, ezta gure ere aina. Ar-eman estuagoak bear gunituzkela izan ueritzat. Den-denok euskalaun gera, aiek eta bai gu ere, go batez joka dezagun, bada. Ontarako bideak antola bearrean gade. Lurrak mugatzean, euskara ta euskalaunok oitan berezi nai izan al gaituzte, alay?

- Elitzake, uste dutanez, bide okerra "Euzko Gogoa" ri zabalikunde aundia go ematea...

- Onatx, beraz, irugarren bidea. Gunitzek galuegin didate aldizkariaren berri, utzi bear nuen edo kezka. Ez dut olako asmorik. Aal badut emen aterako dut, arpiuedun askoz ere geiago izango lituzke-ta, merkeago ere bai. Emen ezi nauezaket, berri, bestaldeen; baño atera, aterako dut, naiz-ta lurraren azken-mugara-no joan bearra izani?

- Eztakit zer uerizkiokezun, baño eia eban: euskera mailan-gora doala badaukust, baño ez ote da alperrikako? Labur: erriak ueritu ezin dezaken euskera zertarako iantzen ari gera ?

- Etorkizunerako lanean ari gerala derizkiot. Euskal erria burutik sendatu bearrean gaude, ez onetatik. Yakin-gizon, lege-gizon ta aundiakiek onda digute euskera. Aundiki ta gizon-ikasi asko aitzuketzu egun euskera ikasi irrikaz. Ez ordea konuairan barrera ta orain urte gutxi ere. Odol garbitasunaren ardura aundia zuten gure aintzinaako aundiki ta lege-gizonak, etzuten ordea onelako ajolarik azaldu euskera ren jarraitasun ta iraupenerako. Aurkako asko sortu zitzaizkion Lizardi 'ri (S. P.) bere alaian, onda-biuetik apia zela ta esanez... orduko olerki uier-ezineko aisa, norik, ikasietan beoren, ez ditu egun aisa ulertzenta atseginenez miazkatze? Lege gizonak, gizon-ikasiak, aundiak, lan-sail guzietariko teknikoei euskera mamitua eman bear diegu, bere bakoitzak bere sailean landu dezan ta zernaitarako sai egin. "Cura recreum"; auxen zan Jon Huarte senna-gilie-pilosopuilariaren leloa senna-gaietan, "senna lenik surua".

Adizu, ta zuk garabilkizun euskerea ze bideko edo zer euskiki-kutsu garama?

- Garabilkidan euskerari "euskera osotua" deritzot. Ezta "gipuzkera osotua" ere. Bekoki zapalagokin yokatzen naiz batasun arlo ontan. Batasuna bearrezkoa da. Ertzetara jo saie "gipuzkera" derizkiot eokiena, ulergarriena, naiz bizkaitar, naiz lapurtarrentzat. Euskera bat da ta lasai erabili bear aitzu nunaiko esakera ta itz.

Onela mintzo zaigu gure apaiz jatorra itz-asper-tu batea. Naiz ta lerro auek itakurri, ezin somatu zenezake zaitegi jaunaren nortasuna. Poliki-poliki damintza, garbi ta txukun, ia eraaldunak uler-tanberan. Naiz-ta sai gainoitiko-enak jarraun bear, eztizkitzu vela eraal-itziak nasituko tartean. Euskeraren eokera ta iraupena begi-argiz garusa oso.

Gogoak berpiztu dizkiu beintzat lanerako, ta aal men zertxobait goaituak enaberritu. Astinduako aal aitu be re itz jarrenkor oiek ainsteste euskalaun naizitsu!

Orde bekigu Jainkoak gutartean urte askotako arnari garaul ta esinenak emateko sasoi euerrienean dugun zugaitz sendo au! Bejoinazula zaitegi jauna!

Urbieta'tar Imanol. ofm  
Arantzazu'ko teologilari.

## EUSKALZALEEN BATZARRA

Agorrak 16 zituaneke ura! Buru-biotzetan estuki yosirik edukibear dugun eguna! Aspaldi-danik erai-minetan eko egoniko euskalzaletasunari egun-senti itxarona eldu zitzaiola zirudín.

Erri-xearen mailan soilik ikusi oi izan dugu euskera aspaldion. erri-xearen mailan, eta erri-xea sarritan berarengandik urrutira nairik. Erdalkeriak erri ezjakiñari burua azalkeñiz, gezurrez, itxuraz antzaldatu baitio, euskera baserri-galetarako, ikazkiñen yadunetarako baizik eztala esanaz.

Gure zenbait erritarren buru-biotzak gezur-esiz inguraturik arkitzen ditugu, ez baitaukate gezur orren bestaldea zeatzki ikusteko ez biderik ez eskabiderik. Aoritzarra, bana egi garratz!

Baiña egun artakoak berpiztu egin gindun, gure barneak eraberritu, suspertu, bizitu egin ziran, euskera, naiz-ta zenbait ostopo-arri gaindu bear, beste malletara igo ditekela oarturik, eta eikartu-euskalzaleen pizkortas-un trebea nabariturik guztien asmotan.

Bi euskalzale-talae bereiztu zitezkean: euskalzale euskera-jakitun, eta euskalzale euskera-ezjakin. Baiña juziak euskalzale!

Bigarren, oaz zertxobait adiraz nai nizueke, ok yator jokatu bait-zitzaizki, un. Talae bikain bat eldu zitzai-gun, beste zenbait napar-euskalzaleen izenez eta asmo-azalduz. -"A girta yaso nai dugu gobernura, euskera "monumento Nacional" aortortu dezaten eskatuz sendo". Au izan zenun, euskal irakurle, gure anal naparrak eskeini ta erakutsi zigutena. Egoiki ta ongi deritzai! Onezaz gainera napartar batek esan zuana otordu-garaian aitatzke ezin naiteke aurrera yoan: "Iskuntza oraindik eskeini-eziñean gauenok, trebeta-suna takena eskeintzen dizkitzuegu". Be, ondelzuela!

Iru jardunetako egunak izan genitun:

Alkar-eragutu: aurpe\_giz, izizioides eta batez-ere beren lan-asmoz. Euskalzaleen lan-asmoak aibatu aituanez, gai o-nezaz eskuarteak dadukagun arazo bat azaldu nai nizueke: zenbait euskalzaleen artean, euskera-lan edo euskera erailan ugari ditugu. Ta aitzinetan au gerta zaigu: bizpauru euskalzaleen artean lan berdina ioiioi oi da, alkarren berri yakiteke. Noizbait yajinen dute alkarren berri ta orduan kontuak. Zer egin! iakin dezagula euskal-idazleok edo euskal-iaazie berriok gure kideon berri. Zelan? Asier-asieran oederen, artu-emanak ugarituz, lan edo era-lan asmoak aie-raziz. Gero... beste jokabide egokia o bat autetsi genezake...

Elkar-berotu, berotu... nor berotu ez olakoak ikuskiki. barnetik eta atetik, uziok lekuko, bero-giroa nabari enizun... Leendik berotuta, ta Inpeita ren bertsoak jainetik, ezta o zer esanik...

ASMOZ ta yakitez yarraitzeko: euskaltzaindikoak eta buk, bakoitzak bere mailian lan e\_itera pizkortu ziran. euskaltzaindikoak itzlarrien asmoak ontzat artu eta zabalduko zituztela zin emanaz. Eta beste euskaltzaleok euskara-gaietan lan e\_itera ordurate baño e\_otsuago eskeini ginnan.

Bakoitza bere arloan egin beza lan:

yakin gizonak yakintz-gaietan;

lege-gizonak lege-gaietan;

sendagilieak berean;

arruntz ta aberats beren mailian;

gurasoak sendian -amak sutondoan-


aitak bere bizibidean...

apaizak danak alkartuz

Jainko bidetan!

Iñaki bereziartua.

arantzazu'ko prailea.





Argitaraberri dugu Orixe'k euskaraturiko "Agustin Leunaren Aitorkizunak". Liburu bikaña! Ohore bearrik ez du gure euskeraren idazle gaitailen dugun Orixe ospetsuak. Bera dugu nagusi ta gidari, euskera-lantze ontan. Bere ikurra darabagu egunero euskal-idazleok. "Aitorkizunak" irakurgai onek 462 orrialde ditu. Itzaurrez "Aturia'ko ta Akiza'ko botzai txit agurgarri Clement matnieu Yaunari" zuzenduriko idazkitxo bat dakar. Azken atalburuaren ondoren "istegitxo" bat erabili itzak erderaturik. Iritz-epaia? Ezin eman irakurri gabe; gainera onen bearri ere eztu. Orixe'na duzu. Espaturik dago. Garrantzi aundiko liburua dugu euskera-mailan, Orixe' bearrik idazki ortan dakarrenez: "Bestetik ez bada ere, ezin esan, S. Agustiñek, euskerari on aundia eginen ez dionek. Gaurkotik au gelditu diteke, Biblia leku, euskal-libururik bikañena".

Euskal-idazleok darabilgun ondorio aundiko akats bat ager nai nuke emen. Ara bi gertakizun:

Arantzazuko teologilari batzuen artean "Glorias de Maria" euskeratzen ari ginen aspaldianik. Amaitze ari gera oraintxe. Orain bi illa ete edo jakin gaudu beste apaiz bat ere ari ortantxe ari zala. Au joakerea! Itxoiten egin ginen ia zer gerta... azkenin -gu arraragotuak gure dela-ta- berak eginako dana guri eman zigu.

Zer derizkiozute! Milla idazle baina ere!

San Inazio'ren bizitzakin ere berdin gerta omen da. Iru bizitz batera euskerazten!

Sail ontan agertu ditzagun dakizkigun lanen bearri. Berez dager onen bearra.

Lesede bat. Aldizkari au askoren eskuetara iritxi da. Guzien iritziak nai ginituzke, ta iritzi, auek idatziz bialtzea. Iritzi sakonenak ementxe argitarako ditugu. Erakutsi eonori -euskera aholadunei batez ere-ta jakin-gizonak badira eskatu iritzi.

~ ~ ~

Lerro auetatik aipatu ta onoretu nai genituzke ezagun ta asmokide ditugun zenbait emakume aupagarri. Aipatu besterik ez ditugu egin, ezpaitakigu beren lanen berri, zeatz beintzat. Gauz bat adierazi nai nieke: atsegiñez artuko genituzkela beren lanbideen berriak. Ia urrienerako bidaltzen dizkiuten.

Bat Zipitri emakumea duzue. "Ira" sasi-izenez ezaguna da. Emakume bizkor ta eragikorra. Ari dituan zenbait lanen berri badakigu, baño naiago dugu berak azaltzea. Eztu lotsik izango!

Bestea, "Cargi" ko neska jatorra. Onelako neskatik asko bear genituzke Euskalerrian egun! Lan ixilla ta ondoriotsua ari duana badakigu! Ausi beza bein bate-agatik apaltasun-muga ori, ta bere ekitearen berri azaldu emen. Bejondaiola mari Cruz Franco zabalegi'ri!

Beste zenbait txit aupagarri ere ezagutu genitun Euskaltzaleen Biltzar artan. Besteetan artean Gazteiz'ko neska gazte batzuk. Euskera-ikasiaz ta euskera-aren irakasle! Bejondaiela!

"Ekin ta Yarra" emakumeok!

~ ~ ~

Askotan uste baño egiago egin genezake! Biltzar ortantxe jakin genun Valencia'n dagon apaiz auzgarri euskaldun batek Aramayona'ra oporraldiak igarotzera yontan ta bertan egin zuana:

Artu umetxoak berekin ta kristau-ikasbidea euskeraz irakatsi. Alkartasunezko mezak eginarazi umetxoei bestelako jakingarriak euskeraz adierazi. Mendi-egunak, arrats-mendi-ibilkerak t.a... Euskal oiturak erein nunai, ta euskararen alde lan ederra burutu. Nork eztaki errialde oietan gure euskera pikuetara dijoana?

Zenbat eta zenoat apaizek eta apaizaiak ere egin lezaketen olako zerbait!... Ikasi dezagun!

~ ~ ~

~ ~ ~

Arantzazu'go urte Santu ontarako gertuak zeuden zenbait sarikataen berri eman dezagun:

Olerki-sariketa: Arantzazu'ri buruzko olerki bat. Aita Gandiaga gertatu da garaile edo "txapeldun". Ezaguna duzue olerkari aue lendik ere. Olermen zorrotz ta euskal-usaizkoa du oso. Joandan urtean ere berak irabazi zizun. Omore beroak egin dizkiote euskaltzaleek. izango aal duzu bere olermen-irakitearen arnari yoriak milixkatzeko zoria! Jarrai bekio ortan! Artu beza ere "Yakin" aldizkariareh zorionik sutsuena!


Zorion Aita Gandiaga!

Itz-lauzkoa : orain Extremadura'n dagoan euskaldun batek irabazi dizu. Lenengo-mailaren txapeldun duzu. Ez dut izenaren berri. Bigarrena Berasaluze'tar Jabin, prantzizkotarra. Ats-aundiko idazlea duzu au ere, naiz ta gazteño izan. Zorionak Sabiñ!

Sinfoni-poema sariketa : Aia Arantzazu'ri buruzkoa. Patxi Eskudero duzu garaile. Ezaguna zaizu noski "Illetak" ren egilea. Bejondaiola & Jarrai d. zaiola bide ortatik, euskla-arnasezko gai oietik!

Bigarren Duo Vital duzu. Madrid'eko duzu; emen izan genuen erai-xoraturik euskla-paraje auetan bere lanerako arnasartzen!... Bejondaiola ere!

~ ~ ~



Entzun duzu? "Arkar izketa", irakurle. Eta zer egin bear duzu zue txoko ontan? Orixer, ba, elekarizketan ekiten dana: itz egin lasai.

Aldizkari au teologilariena izango da nai baduzu; baiña inungoena ez, guztiena baizik. Batez ere gure euskal sutionean aditzen dan elkartasun, anaitasun gozo bero ori, bai baduzu, kaikotasun ori nai duzu. Olaxe nai genuke aldizkari au, guztiona, orona egin.

Orregeatik jarri dizugu zuretzako txoko au. Zure buru orrek idaroki ta burura eman dezaizkizuten asmo guzti onek emen agertu ditzazun. Nai baduzu izenakin agertu, nai ez baduzu, gabe; baiña agertu. Esan zure biotz orrek nola taupa ekiten duan euskeraz, euk ere zure orrekin batera egin dezagun. Orduan beteko au gure aldizkari onek gure asmo-naia: gurre euskal biotz-taupadaen erakustzaille izan oedilla.

Oratarako zera jakin nai genauke: zer deraitzai-  
zu aldizkari au; gure sailketa auzer; zer erantsi lezaioken;  
nola txukanagotu leiken; nola jarri genezaken garko egun,  
1956 urteko gaur-egun ontaratuta; gaur-gaurko beste edoze-  
in argitaraldien maila-mailian.

Ona da, ortarako zure lankidetzak eskatzen dizugu.  
bear bada eztaukazu artikulu luze ta euer bat egiteko beta-  
rik; bada idaroki bat, zolku on bat emateko, edo asmo on bat  
zabaltzeko, ortarako ez daukazu asti luzearen bearrik. Onta-  
rakoze duzu ba "aikar-izketa" txoko au.

Auze cio gure oietzak, ia zer dion zure orrek...

Urrenarte!

